

14/1998 LEGEA, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.

ZIOEN ADIERAZPENA

I.– Euskal Autonomia Erkidegoak erabateko eskumena du kirol-gaietan, Autonomi Estatutuaren 10.36. artikulua dioenaren arabera. Eskumen horren babesean Legebiltzarrak, kirolak gure egungo gizartean, hezkuntzan, osasunean eta ekonomian duen garrantzia ikusirik, otsailaren 19ko 5/1988 Legea, Soin Kulturarena eta Kirolarena, onartu zuen. Kirolaren arlo ugariak antolatzeko beharraren ondorioz sortu zen legea, ordura arteko arauketa eta egituraketa urriak ziren eta.

Hala ere, kirolaren ezaugarriak dinamismoa eta etengabeko aldaketak izan dira betidanik. Kirol-mundua aldakorra da bere ezaugarrietan eta ezin ditu eduki betirako printzipioak eta inoiz indarra galtzen ez duten arauak, ordenamendu juridikoaren beste zenbait sektoretan gertatzen den modura. Hori dela eta, argi dago 5/1988 Legea onartu zenetik kirolean izugarritzko aldaketak gertatu direla, Estatuan nahiz nazioarteko eremuan. Horrenbestez, legea gizarteko errealitate berrira egokitzeko beharra ikusi da.

Eztabaidaezina da 5/1988 Legeak izan duen egiteko garrantzitsua. Gehienek aitortu diote kalitate teknikoa eta balio politikoa nahiz kirol arlokoa. Hala ere, lege hori indarrean egon den bitartean, antzeman da kirolaren zenbait arlori emandako tratamendua ez dela guztiz egokia izan. Urteetan zehar, halaber, ikusi da arazo larriak gertatu direla eta ez zegoela araurik arazo horiei aurre egiteko. Beraz, ezinbestekoa da arazoei ahalik eta azkarren legearen bidez erantzuna ematea.

Esandako guztiak nahikoa arrazoi dira etapa berri bati ekiteko eta indarrean dagoen kirolari buruzko legedia berritzeko, izan diren aldaketetara egokitzeko eta, horrezaz gain, urrutirago doan ikuspegia harturik etortzekoak diren aldaketetarako prestatzeko. Gauza jakina da euskaldunek jarrera ona izaten dutela edozein kirol-jardueratan parte hartzeko eta gaitasun handia dutela kirol-ekintzak antolatzeko, eta horrek lege-esparru berria eskatzen du eta behin betiko bultzada, une honetan Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen egiturari eusteko.

Gorabehera horiek kontuan hartuta, arau-mailarik gorenaren bidez antolatu da kirola, hots, lege baten bidez. Legea gainerako autonomia-erkidegoetako arauak baino harago doa, hainbat arazo bildu ditu eta arau-esparru bat egituratu du euskal kirolak dituen errealitate guztietarako.

II.– Orain aldarrikatzen den legearen I. tituluak aplikazio-eremuari eta printzipioei buruzkoa da, eta hartan aurreko testua errespetatu da funtsean. Proposatutako aldaketak teknika juridikoari eta edukiari buruzkoak dira. Teknika juridikoaren aldaketei dagokienez, ahalik eta gehien sinplifikatu da herri-agintarien jardueraren printzipio gidariak biltzen dituen apartatua. Nabarmentzekoa da, bereziki, herri-aginteek kirol-praktika bermatu beharra dutela laguntza pribatua sustatuz. Kirolerako ekonomi baliabideak eskuratzeko, sektore pribatutik lortu behar da finantzazioa, ekintza publikoaren osagarri izan dadin. Printzipio gidari berriak sartu dira, halaber, kirolek indarkeria erazteko, emakumea kirolean maila guztietan sartu ahal izateko baldintzak bultzatzeko, dopatzea zigortzeko edo, adibidez, unibertsitatean kirola sustatzeko.

III.– II. tituluak, Estatuaren eta gainerako autonomia-erkidegoen legeen egitura jarraituz, kirolaren lehiaketa-antolaketaz dihardu, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen ondorioz onartutako jarraibideetatik abiatuta (lege hori Autonomia Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Jardute Erakundearen Arteko Harremani buruzkoa da). Oraingo legeak aurreko legearen ildo beretik sakondu du eta eskumeneko arloak zehatz-mehatz mugatu ditu, 5/1988 Legearen indarraldian izan diren interpretazio-desadostasun ugariak ekiditeko.

IV.– III. titulua euskal kirolaren elkartze-egitura antolaketa-arlo guztietan arautzeari buruzkoa da. Hainbat gauza berri dakartza araudi berriak. Aipagarria da, lehenik eta behin, kirol-sozietate anonimoei egiten zaien beren-beregizko aitortpena. Bigarrenik, federazio-sarea berregituratzea pentsatu dugu, orain arte neurri desegokikoa izan baita eta arazo bereziak izan baititu. Federazioen atomizazio kezkarriari konponbidea bilatu nahi izan diogu, kirol-federazio asko baititugu Euskal Autonomia Erkidegoan ia ezarpenik gabekoak eta kirol-jarduera urria kudeatu dutenak, altxor publikorako onartezinak diren kostuekin. Horrenbestez, baldintza berriak ipini dira kirol-federazioak sortzeko, eta behar bezalako ezarpenik ez duten kirol-motek ez dute aukerarik izango kirol-federazio bihurtzeko. Horrezaz gain, lege-mailako hainbat mekanismo jaso dira kirol-federazio batzuk sortarazteko izan ziren arrazoiak desagertzean aitortpen ofiziala ezeztatzeko. Kirol-federazioei esleitutako egiteko garrantzitsuak aintzat harturik, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaileak baitira bakoitzari dagokion kirol-mota antolatzeari dagokionez, hainbat manu sartu dira parte hartzeko eta kontrolatzeko, bai eta babesteko eta laguntzeko ere. Lege berriak, halaber, kirol-federazioetako xedapenak aldizkari ofizialetan argitaratzeko nahitaezkotasuna jaso du. Bestalde, kirol-elkarteen nozioa berriro egin da, aurreko legean izandako esperientzia txarra kontuan hartuta.

V.– IV. titulua kirol-lehiaketei buruzkoa da, eta lehiaketen sailkapen koherentea egin du kirolaren lehiaketa-eremuak kontuan hartuta. Testuak, halaber, garrantzi handiko ezaugarri bat jaso du: baimen-motek izan behar duten izaera arautu esplizitua eta baimen horien gutxieneko edukia eta eraginak.

VI.– V. tituluak kirol-sistema guztien euskarrietako batez dihardu: eskola-kirolaz. Kirola garrantzitsua da eskolako ikasleen heziketa osorako, nortasunaren garapen harmonikorako eta baldintza fisiko eta prestakuntza egokiak lortzeko, gerora begira ere kirola egiten jarraitu ahal izan dadin. Hori da legeak kontuan hartu duena eta ez du aldaketa handirik ekarri. Eskola-kirola arautzen duen kapitulua legearen beste titulu batzuetan eskola-kirolaz bildu diren aurreikuspenekin osatu da.

Arreta berezia eskaini zaio, halaber, unibertsitate-kirolari, unibertsitatearen autonomia errespetatuta beti ere. Kirola gizarteratzeko edozein prozesutan ezin dugu unibertsitatea alde batera utzi. Kirol eta gizarte garapen handiko herrietako esperientziak erakusten digunez, unibertsitatea erakunde aproposa da kirol-jarduera hedatzeko erronka bere gain hartzeko, kirol-jardueraren jarraipena ziurtatzeko adin egokian dagoen biztanleria baitauka bere baitan.

VII.– Kirol-teknikarien prestakuntzaren eta titulazioen gaia da legearen kezkarik nagusienetako bat. Jarraibide asko diseinatu dira arlo horretan: batetik, legezko babesa eman zaio kirol-teknikari tituludunak izan beharri, irakasteko, zuzentzeko eta bestelako jarduerak burutzeko; bestetik, bertan behera utzita dagoen kirol-teknikarien prestakuntzaren gaian sakondu da eta Kirolaren Euskal Eskola sortzea jaso da.

VIII.– VII. tituluak kirolarien asistentziaren eta babesaren arazoak dihardu legeak. Titulu horretan nabarmentzekoa da kirolarien segurtasunaren eta osasunaren babes orokorra, edozein jarduera burutzen dutela ere. Horrekin batera, oinarritzko euskarriak dira arriskuen estaldura eta erantzukizun zibilaren sistema. Goi-mailako kirolak leku berezia dauka legean, funtsezko faktorea baita Autonomia Erkidegoko kirolaren garapenerako; eta funtsezko faktorea da bizigarria delako oinarriko kirolarentzat eta ordezkartza-funtzioa betetzen duelako Estatuko nahiz nazioarteko lehiaketetan.

Legeak kontuan hartu du dopatzearen gaia ere. Agintari publikoek eta kirol-antolakundeek erantzukizun osagarriak dituztela abiapuntutzat hartuta, legeak kontuan hartu du dopatzearen arazoa diziplina-bidetik kanpo ere.

Kirol-medikuntzaren eta osasun-laguntzaren arloan xehetasun handiagoz zehaztu dira Administrazioaren eskumenak, bai eta diru publikoen konturako osasun-prestazioak ere. Eusko Jaurlaritzak eskumena du, halaber, pertsonen osasunerako arriskutsuak diren kirol-jarduerak debekatzeko. Horrekin batera, kirolarientzako osasun-txartela eratzeko aukera jaso da, beste herrialde batzuetan egiten den modura.

IX.– VIII. tituluari legeak kirol-ekipamenduen eta zerbitzuen arloa jorratu. Kirol-jarduerak ekipamendu ez arruntetara ere jo duenez, gomendagarria zen horien aipamen bereizia egitea legean. Bestalde, kirol-instalazioen erabiltzaileei legeak ematen dien babesa jaso da, eta gutxieneko kalitatea, garbitasuna eta segurtasuna ziurtatzeko baldintzak finkatu dira. Lege berriak kirol-instalazioen izaera pribatua zehaztu du, finantzazioari begira. Kirol-ekipamenduen errolak osatzeko eta eguneratzeko betebeharrak ezarri dira, bide batez. Kirol-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen arazo kezkarria ere aipatu da lehenengo aldiz, arazo hori arautu gabe zegoen-eta orain arte.

X.– Kirol-lehiaketetan edo horien inguruan sortzen den indarkeriari aurre egiteko baliabideak ezartzea sustatu nahi izan du legeak. Gizartea gero eta kezkatuagoa dago indarkeriaren gorakadatik orokorrean. Kirolarekin zerikusia duen indarkeria gizartean dagoenaren isla baino ez dugu, baina beharrezkoa da neurri batzuk hartzea kirol-jarduera garatzen den ingurunea kontuan hartuta. Kirolak heziketari eta osasunari egiten dizkion mesedeak aldarrikatzen dituen lege batek kontuan hartu behar ditu kirolaren baitako indarkeria aurrezaintzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko neurriak. Europako Kontseiluak indarkeriari buruz landutako Europako Hitzarmenean azaltzen diren printzipioetara egokitzea izan da legearen xedea.

XI.– Legeak arreata handia eskaini dio kirol-diziplinako araubideari, eta hori kirol-egitura pribatuen bitartez gauzatuko da. X. tituluak diziplina-gaiez dihardu eta zenbait berritasun jaso ditu: azkenaldi honetan azaldu diren jokabide gaitzesgarri batzuk arau-haustetzat jotzea edo kirolaren baitatik indarkeria edo dopatzea erazteko zigor-neurriak sartzea. Gogoan izan behar da, halaber, aurreko 5/1988 Legeak arau-hauste gutxi batzuentzat baino ez zuela jaso zigor-ahalmena; horren ondorioz, kirol-federazioetako gobernu eta ordezkari organoetako kideen hainbat egintza edo ez-egite inolako zigorrik gabe geratu ohi ziren. Egoera horren aurrean, lege berriak zehaztu egin du, zabaldu egin du kirol-diziplinaren kontzeptua. Hala, behar bezala bete da legez-kotasunaren printzipioa eta ezinbestekoak diren oinarrizko elementuak ezarri dira, eta horietatik abiatuta zehaztuko da araudi bidez kirol-diziplinaren eduki osoa.

XII.– XI. tituluari zigoren lege-esparru berria jaso da. Era horretara, bete egin da Konstituzioak herri-administrazioaren zigor-ahalmena lege-mailako arau batez babesteko duen beharkizuna. Kirola gizartean oso sartuta dagoenez, aginte publikoek gero eta parte-hartze handiagoa izan ohi dute kirol-ekitaldiak arautzen. Arautze horren beharra onartzen bada, ezinbestez eduki behar da zigor-araubide zehatza, kirolean jarraitu beharreko arauak maiz hausten baitira. Horrela, bada, arau-hausteen larritasunaren sailkapen berria egin da eta zigoren zenbatekoak eguneratu egin dira. Otsailaren 19ko 5/1988 Legean jasota ez zeuden hainbat jokabide ere arau-hauste gisa tipifikatu dira lege berrian.

Horrenbestez, legeak bete egin du konstituzio-jurisprudentziak mugatzen duen legez-kotasun-printzipioa, zigor-araubideari buruzko kapituluari bezalaxe. Era berean, oinarrizko eta

ezinbesteko elementuak ezarri ditu, horietatik abiatuta zigor-araubidearen eduki osoa araudi bidez zehazteko.

XIII.– XII. titulua kirol-justiziari buruzkoa da, eta formula estrajudizialak jaso ditu kirolaren baitan azaltzen diren gatazkak erabakitzeko. Gatazka horiek gero eta maizago ari dira judizialak bihurtzen eta lehiaketako kirolaren dinamismoa ez da ondo moldatzen Justizi Administrazioaren jardura ez oso egokiarekin. Horregatik, kiroleko arbitratzeari lege-mailako instituzionalizazioa ematearen aldeko apustua egin dute Estatuko 10/1990 Legeak eta erkidegoetako legeek. Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-legediak ez zuen aurreikuspenik orain arte eta beharrezkoa zen legea berritzea, legean formula estrajudiziala sartzeko. Legearen testua idazterakoan, zuzendu nahi izan da arbitratzearen eta kontziliazioaren artean dagoen nahastea, beste erkidegoetako lege batzuetan gertatu dena, eta ezabatu egin dira lege horietan azaltzen diren justifikaziorik gabeko murrizketak. Berritasun gisa, kirol-federazioak derrigortuta daude arbitratze-formulak aurreikus-tera eta arautzera beren kideen artean sortzen diren auzietarako.

Titulu honetan jorratu den beste arazoetako bat oraingo Kirol Diziplinako Euskal Batzordearen eskumen-eremu murrizta zabaltzea izan da; lehen diziplina-gaiak hartzen zituen bakarrik eta ezin zituen erabaki bestelako kirol-auziak. Lege honek kirol-mugimenduaren aspaldiko nahia bete du gure Autonomia Erkidegoan: Kirol Justiziako Euskal Batzordea edukitzea, eskumena izango duena hauteskunde-prozesuekin, federazio-lizentzien tramitazioarekin, maila igoerekin eta jaitsie-ekin eta abarrekin zerikusia duten gaitan erabakitzeko.

XIV.– Azkenik, «esparru-lege» baten aurrean gaudela nabarmendu behar da. Legearen helburua estaldura zabala ezartzea izango da, etorkizunean kirolean gerta daitezkeen aldatetara unean-unean araudi bidez egokitu ahal izateko. Legearen arauketa zabala izan da, hain zuzen kirolari buruzko gai eta arazo asko jorratzen dituelako oinarrizko mailan, baina oinarrizko arauketa horrek ezinbestekoa izango du araudi bidez osatzea. Azken finean, arau ireki eta malguaren aldeko apustua egin dugu, kirolak hain ezaguna duen dinamismorako egokia izan dadin.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Helburua eta aplikazio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoan kirola arautzea da lege honen helburua.

2. artikulua.– Printzipio gidariak.

1.– Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garaizteko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria.

2.– Pertsona guztien funtsezko eskubidea da kirola askatasunez eta norbere borondatez egitea.

3.– Aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian:

a) Hezkuntza-sisteman kirolari eta gorputz-hezkuntzari lekua ematea.

b) Kirol-elkarteak bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea ere.

- c) Goi-mailako kirola bideratzea eta sustatzea kirol-federazioen parte-hartzearekin.
- d) Kirol-jarduera gizarte-maila guztietara, batez ere ahulenetara, zabaltzeko programa bereziak onartzea eta burutzea.
- e) Lehiaketa-kirola bideratzea eta sustatzea.
- f) Kirol arloan ikerkuntza zientifikoa bultzatzea, kirolaren kalitatea hobetzeari begira.
- g) Kirol-teknikarien prestakuntza bideratzea eta bultzatzea Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearen eta kirol-federazioen parte-hartzearekin.
- h) Kirolarientzako mediku-laguntzako sistema espezializatua bideratzea eta bultzatzea.
- i) Kirol-instalazioetan segurtasuna eta higiena aurrezaintzeko eta kontrolatzeko sistema bat bideratzea eta bultzatzea, ezinduak modu errazean sartu-irtetea bermatuz.
- j) Behar diren neurriak hartzea kirola eta kirolariak helburu politiko, ekonomiko edo bestelakoen gehiegizko esplotaziotik babesteko.
- k) Indarkeria kirol-mundutik erazteko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- l) Kirol-ekitaldietan parte hartzen dutenei arriskuen estaldura egokia bermatzeko neurriak hartzea.
- m) Lankidetzat arduratua izatea kirol arloan herri-administrazioen artean eta herri-administrazioen eta kirol-federazioen eta/edo beste edozein kirol-erakunderen artean.
- n) Ezintasun fisiko, psikiko, sensorial edo mistoak dituzten herritarren artean kirol-ekintzak sustatzea, zeharo gizarteratu daitezkeen laguntzeko.
- ñ) Emakumea maila guztietako kirol-praktikan sartzea erraztuko duten egokierak sustatzea.
- o) Kirol-jardueretan naturaz modu egokian baliatzea bultzatzea, ingurugiroaren babesarekin bateragarria izan dadin.
- p) Kirol-instalazioen ahalik sarerik onena planifikatzea eta sustatzea.
- q) Kirola aisialdi-aukera eta osasun-ohitura modura sustatzea, helburu hori lortzeko egokiak diren kirol-ekintzak aldeztuz.
- r) Oinarriko kirola, batez ere eskola-kirola, bideratzea eta sustatzea, euskal kirola maila guztietan garatzeko eragilea den neurrian.
- s) Euskal kirolari laguntzea Estatuan nahiz atzerrian.
- t) Euskal Herriko kirol-motak babestea eta sustatzea.
- u) Kirola kultur osagaitzat eta gizarte-bateratzaitzat aitortzea.
- v) Ideario olinpikoa onartzea eta babestea, eta dopatzea eta osasunaren nahiz pertsonaren duintasunaren aurkako beste edozein jokabide kirolek erazteko neurriak hartzea.
- w) Kirolaren babesle pribatuak sustatzeko neurriak hartzea jardun publikoaren osagarri gisa.
- x) Unibertsitate-kirola bideratzea eta sustatzea.
- y) Espetxeetan kirol-programak sustatzea, presoek gizarteratzea lortzeko.

II. TITULUA

ADMINISTRAZIO ANTOLAKUNTZA

3. artikulua.– Xedapen orokorrak.

Euskadiko kirolaren antolakuntza instituzionala herri-administrazioen deszentralizazio, koordinazio eta eraginkortasun printzipioetan oinarrituko da bakoitzari dagozkion eskumenak erabiltzerakoan, kirol-federazioen, klubien eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturen lan-kidetzarekin eta parte-hartzearekin. Kirol-federazioek, herri-administrazioen ordezkari laguntzaile diren aldetik, haiekin aktiboki hartuko dute parte Euskadin kirola antolatzen eta garatzen.

4. artikulua.– Erakunde komunak.

1.– Autonomia Erkidegoko erakunde komunek kirol arloan Euskal Autonomia Erkidegoari Autonomi Estatutuaren indarrez dagozkion eskumen guztiak erabiliko dituzte, salbu eta lege honetan edo gainontzeko antolamendu juridikoan lurralde historikoetako foru-organoei, udalei edo gainontzeko toki-erakundeei ematen zaizkienak.

2.– Autonomia Erkidegoko erakunde komunei dagozkien eskumenak hauek izango dira zehazki:

- a) Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroa arautzea eta kudeatzea.
- b) Kirol-diziplinako arauak finkatzea.
- c) Goi-mailako kirola bideratzea eta sustatzea.
- d) Kirol Federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe.
- e) Kirola egiteko derrigorrezkoak diren gaitasun-azterketa medikoak arautzea.
- f) Kirolaren Euskal Kontseilua arautzea eta antolatzea.
- g) Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzea eta antolatzea.
- h) Kirol-teknikariak prestatzeko zentroak eta horietako irakaskuntzak eta tituluak arautzea, ofizialki onartzea eta bultzatzea.
- i) Kirol-federazioen, kirol-klubien eta gainontzeko kirol-erakundearen araubidea finkatzea.
- j) Kirol-klubak interes publikoko izendatzearen arautzea.
- k) Kirol-lizentzien araubidea finkatzea.
- l) Kirol-instalazioen eraikuntza, erabilera eta mantenimendua arautzea.
- m) Eskola-kirolaren oinarriak eta printzipioak, kirol-diziplinako araubidea eta lehiaketak finkatzea.
- n) Kirol-zentroak arautzea.
- ñ) Era bereko irizpideak onartzea herri-administrazioek kirol-ekipamenduen erroldak egin ditzaten.
- o) Kirol-erakundearen zuzendaritzako kideentzako estututua onartzea.
- p) Autonomi Erkidegoko kirol-ekipamenduen errolda onartzea eta eguneratzea.

- q) Dopatzea aurrezaintzea, kontrolatzea eta zigortzea.
- r) Naturan egiten diren kirol-ekintza arriskutsuen antolakuntza arautzea.
- s) Indarkeria aurrezaintzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko arauak ezartzea.
- t) Kirol-mota berriak onartzeko irizpideak eta baldintzak onestea.
- u) Jarduera jakin bat kirol-motatzat kalifikatzea.
- v) Kirolariaren osasun-txartela arautzea.
- w) Unibertsitateen arteko kirol-ekintzak bideratzea eta koordinatzea, eta Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea arautzea.
- x) Kirol-ekitaldien antolakuntza arautzea.

5. artikulua.– Lurralde historikoetako foru-organoak.

Lurralde historikoetako foru-organoei dagokie, zeini bere lurralde-esparruan, eskumen hauek erabiltzea:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-kirolaren arloko arauak garatzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatzea.
- b) Kirola guztientzat sustatzeko kirol-politika onartzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatzea.
- c) Kirol-erakipamenduen arlokako lurralde-planak onartzea.
- d) Lurralde historikoko kirol-erakipamenduen errolda onartzea eta eguneratzea.
- e) Kirol-erakipamenduak eraikitzeke, zabaltzeko eta eraberritzeko finantzaketa-planak onartzea eta gauzatzea.
- f) Goi-mailako kirolean etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea.
- g) Lurraldean helbidea duten klubei eta gainontzeko kirol-elkarteei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea. Horretarako, diru-laguntzak eskainiko dira eta elkarteek beren ekintzak diru-laguntzen helburuetara egokitzea kontrolatuko da.
- h) Lurraldeko kirol-federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe.
- i) Udalaren kirol-zerbitzuak koordinatzea eta laguntzea eta zerbitzu horien kudeaketa bateratua bultzatzea.
- j) Lege honen eta legea garatzen duten arauen indarrez dagozkien gainerako eskumenak eta egitekoak baliatzea, baita eta azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 12. artikuluan zehaztutakoaren arabera eskualdatu edo eskuordetu daitezkeenak ere.

6. artikulua.– Udalak.

Udalei dagokie, zeini bere lurralde-esparruan, eskumen hauek betetzea:

- a) Lurralde historikoetako foru-organoek onartutako eskola-kiroleko programak burutzea, haiekin koordinatuta jokatzuz.

b) Udalaren kirol-ekipamenduak eraikitzea, zabaltzea eta hobetzea, eta orobat kudeatzea eta mantentzea ere.

c) Kirol-ekipamenduen hirigintza-plangintza egiteko tresnak onartzea eta gauzatzea.

d) Udalaren kirol-ekipamenduen erabilera arautzeko ordenantzak onartzea.

e) Lurralde historikoetako foru-organoek kirola guztientzat zabaltzeko onartutako programak gauzatzea.

f) Udalaren kirol-ekipamenduen errolda bat onartzea eta eguneratzea.

g) Lege honen, gainontzeko legezko xedapenen eta lege hau garatzeko arauen indarrez dagozkien eskumen eta egitekoak baliatzea, bai eta eskuordetzan eman dakizkiekeenak ere.

7. artikulua.– Kirolaren Euskal Kontseilua.

1.– Kirolaren Euskal Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-politikari eragiten dioten gaietan aholkularitza emateko, kontsulta eta jarraipena egiteko eta eztabaidatzeko herri-administrazioen arlo-organo nagusia izango da, eta Eusko Jaurlaritzan kirol-eskumenak dituen sailari atxikita egongo da.

2.– Eusko Jaurlaritzaren, Euskadiko foru nahiz udal administrazioen eta euskal kirol-federazioen ordezkariak osatuko dute Kirolaren Euskal Kontseilua. Halaber, Eusko Jaurlaritzan kirol-eskumena duen saileko titullarrak kirol-munduan ospe handia dutenen artean izendatutako pertsona batzuk ere kontseiluko kide izango dira.

3.– Kirolaren Euskal Kontseiluaren osaera, izendapen-sistema, jarduera-arauak eta egitekoak araudi bidez ezarriko dira. Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da kontseiluak esku hartzea kirolarekin lotutako xedapen orokorren proiektuetan».

8. artikulua.– Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordea.

1.– Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordea Eusko Jaurlaritzan kirol-eskumena duen sailari atxikita dagoen organo independentea da. Bere helburua da mugimendu olinpikoa garatzea, ideal olinpikoak zabaltzea eta euskal kirolariak Joko Olinpikoetarako presta daitezen, haietan parte hartu eta ordezkari izan dezaten sustatzea.

2.– Honako hauek izango dira Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordeko kideak: Eusko Jaurlaritzan kirol-eskumena duen saileko titullarra, batzordeko lehendakari; kirol-mota olinpikoak dituzten euskal kirol-federazioen ordezkariak eta kirol-munduko pertsona garrantzitsuak.

3.– Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordeak euskal federazioen partaidetza izango du eta Euskal Herriko kirolen sustapena bultzatuko du.

4.– Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordeak, bere erakuntzari, antolakuntzari eta jardunbideari buruzko gorabehera guztietarako, lege hau eta berau araudi bidez garatzen duten xedapenak izango ditu araubide.

III. TITULUA

KIROL ERAKUNDEAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

9. artikulua.– Kirol-erakunde motak.

Lege honen ondorioetarako, kirol-erakunde motak hauek izango dira: kirol-klubak, kirol-elkar-teak, kirol-sozietate anonimoak, kirol-federazioak eta Euskal Kirol Federazioen Batasuna.

10. artikulua.– Izenak.

Kirol-kluba, kirol-elkartea eta kirol-federazioa izenak lege honetan izen horiekin arautu diren erakundeek erabiliko dituzte bakar-bakarrik. Debekatuta dago nahasbide gerta daitekeen izen ber-din edo antzeko oro erabiltzea.

II. KAPITULUA

KIROL-KLUBAK

11. artikulua.– Kontzeptua eta araubide juridikoa.

1.– Lege honen ondorioetarako, kirol-klubak elkarte pribatuak izango dira, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikodunak. Pertsona fisiko edo juridikoek osatuko dute, kirol-mota bat edo gehiago sustatzea edo praktikatzea helburu dutenak, lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kontuan hartu gabe.

2.– Kirol-klubek, eratze, inskribitze, iraungitze, antolatze eta jarduteari dagokionez, lege hone-tako arauak eta legea garatzeko xedapenak, klubak beren estatutuak eta araudiak, eta klubak beren estatutuak balio osoz hartutako erabakiak izango dituzte jarraibide.

3.– Atxikita dauden kirol-federazioen estatutuak eta araudiak aplikatu ahal izango zaizkie klubei.

4.– Kirol-klubak beren estatutuak araudi bidez zehaztutako gaiak arautu beharko dituzte. Era berean, demokrazia eta ordezkaritza printzipioen arabera finkatuko dute beren barne-egitura eta jar-duera-arauak, eta ordezkaritza eta administrazio organo guztien hautaketa bazkide guztien boto aske, zuzen, berdin eta sekretuz egitea zehaztuko dute.

5.– Kirol-klubek eratze beretik izango dute nortasun juridikoa, eta erregistroan inskribitzeak, bakar-bakarrik, lege honen ondorioetarako onarpen ofiziala adieraziko du.

III. KAPITULUA

KIROL-ELKARTEAK

12. artikulua.– Kontzeptua eta araubide juridikoa.

1.– Pertsona juridikoak Kirol Erakundeen Erregistroan sartu ahal izango dira baldin eta beren helburu nagusiaren osagarri gisa burutzen badituzte kirol-ekintzak, lehiaketa ofizialetan parte har-tzen duten kontuan hartu gabe. Horretarako, nortasun juridikorik gabeko kirol-elkar-teak sortu ahal izango dituzte beren baitan.

2.– Kirol-elkartek, eratze, inskribitze, iraungitze, antolatze eta jarduteari dagokionez, lege hone-tako arauak eta legea garatzeko xedapenak, erakunde nagusien menpeko gisa dituzten arauak eta beren organoek lege hartutako erabakiak izango dituzte jarraibide.

3.– Atxikita dauden kirol-federazioen estatutuak eta araudiak aplikatu ahal izango zaizkie kirol-elkarteei.

IV. KAPITULUA

KIROL-SOZIJETATE ANONIMOAK

13. artikulua.– Araubide juridikoa.

Euskal Autonomia Erkidegokoan helbidea duten kirol-sozietate anonimoek arlo honetan Estatu-dagoen berriazko legedia izango dute jarraibide.

14. artikulua.– Kirol Erakundeen Erregistroan inskribitzea.

1.– Elkarte-helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan duten kirol-sozietate anonimoek, lege hone-tatik eta ondorengo araudietatik eratorritako onura bereziak jaso nahi baldin badituzte, Eusko Jaur-laritzaren Kirol Erakundeen Erregistroan inskribitu beharko dute.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egonik Kirol Erakundeen Erregistroan inskribitzen diren kirol-sozietate anonimoak kirol-klubtzat joko dira kirol-federazioetan inskribitzeari eta parte-hartzeari dagokionez.

3.– Inskribitzeko jardunbidea eta baldintzak araudi bidez zehaztuko dira.

V. KAPITULUA

KIROL-FEDERAZIOAK

15. artikulua.– Kontzeptua eta araubide juridikoa.

1.– Lege honen ondorioetarako, kirol-federazioak erakunde pribatuak izango dira, irabazi-asmo-rik gabekoak eta nortasun juridikodunak, beren lurralde-esparruan kirol-mota bera sustatzen edo praktikatzen duten kirolari, teknikari, epaile, elkarte eta taldeak bilduko dituztenak.

2.– Kirol-federazioek lege hau, legea garatzeko xedapenak, beren estatutuak eta araudiak, eta beren organoek balio osoz hartutako erabakiak izango dituzte jarraibide.

3.– Kirol-federazioek, beren eskurantzaz gain, administrazio-egiteko publikoak ere burutuko dituzte eskuordetzan. Kasu horretan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa arituko dira.

16. artikulua.– Kirol federatuaren antolakuntza.

1.– Euskadiko kirol-federazioak lurralde-federazioetan eta euskal federazioetan antolatuko dira.

2.– Lurralde-federazioek lurraldean beren kirol-motan ofizialak diren kirol ekintza eta lehiaketak bultzatu, kalifikatu, baimendu eta bideratuko dituzte.

3.– Euskal federazioek beren kirol-motako Erkidego-esparruko kirol ekintza eta lehiaketa ofizia-lak bultzatu, kalifikatu, baimendu eta bideratuko dituzte.

4.– Aisialdiko kirol-jarduera ere bultzatu beharko dute lurralde-federazioek eta euskal federazioek, zeinek bere kirol-motan.

5.– Lurralde-federazioek izango dute beren kirol-estamentuen ordezkariak euskal federazioetan.

6.– Euskal federazioei baino ez dagokie euskal kirol federatua Estatuan eta atzerrian ordezkariak, zeini bere kirol-motan. Beren kirol-selektzioek Estatuko eta nazioarteko kirol ekintza eta lehiaketetan parte hartzea sustatu eta bideratu beharko dute euskal federazioek.

7.– Lurralde-federazioek beren kirol-motako euskal federazioetan sartu beharko dute.

8.– Euskal federazioetan lurralde-federazioetako kirol-estamentu guztiak egongo dira ordezkariak.

17. artikulua.– Barne-egitura eta jarduera.

1.– Kirol-federazioek demokrazia eta ordezkariak printzipioei loturik arautuko dute beren barne-egitura eta jarduera beren estatutuak eta araudietan.

2.– Kirol-federazioen estatutuek gutxienez puntu hauek arautu beharko dituzte:

a) Izena, egitekoa eta helburuak.

b) Helbidea.

c) Kirol-mota.

d) Egitura organikoa.

e) Federazio-organotako titularren hautatzeko eta kargu-uzteko sistema.

f) Jarduera-arau orokorrak eta, bereziki, beren organo kolegiatuek erabakiak hartzeko modua.

g) Federazioa osatzen duten estamentuak.

h) Ekonomi eta finantza arauak.

i) Dokumentuen araubidea.

j) Kirol-diziplinako arauak.

k) Iraungitze eta desegite arrazoiak.

l) Beren estatutuak eta araudiak onartzeko eta aldatzeko jardunbidea.

3.– Batzar Nagusia eta lehendakaria izango dira kirol federazioen ezinbesteko gobernu eta ordezkariak organoak; organo horiez gain, estatutuek beste batzuk ere aurreikusi ahal izango dituzte.

a) Batzar Nagusia izango da kirol-federazioen gobernu eta ordezkariak organo gorena. Batzarrean kirol-estamentu guztiek izango dute ordezkariak. Batzarkideen hautaketa boto aske, berdin, zuzen eta sekretuz egingo da. Kirol-mota bakoitzaren estamentu guztietako kide federatuak izan daitezke hautatzaile eta hautagai. Araudian ezarriko dira ordezkariak-ehunekoak.

b) Lehendakaria federazioko organo betearazlea izango da, federazioaren legezko ordezkariak edukiko du, ordezkariak eta gobernu organoen burua izango da eta organoen erabakiak betearaziko ditu. Boto aske, berdin eta sekretuz aukeratuko da eta batzarkideak hautatzaile eta hautagai

izan daitezke. Inola ere ezin izango da aldi berean federazioko eta kirol-klubeko, kirol-elkarteko edo kirol-sozietate anonimoko buru izan.

4.– Bere organoak hautatzeko, kirol-federazio bakoitzak bere hauteskunde-araudi propioaren arabera egingo du hauteskunde-prozesua, Eusko Jaurlaritzak horretarako finkaturiko epearen barruan eta araei lotuta.

18. artikulua.– Kirol-motak eta azpimotak onartzea.

1.– Eusko Jaurlaritzak, Euskadin kirola antolatu beharrak duen interes publikoa dela eta, jarduerak kirol-motatzat kalifikatu ahal izateko irizpideak eta baldintzak eta kirol-mota berekotzat joko diren azpimotak finkatuko ditu. Era berean, Eusko Jaurlaritzak ezeztatu egin ahal izango die kirol-mota kalifikazioa onarpen hori egitea ekarri zuten baldintzak betetzen ez dituzten jardueri.

2.– Eusko Jaurlaritzaren barruan kirol arloko eskumenak dituen sailari dagokio jarduerak kirol-motatzat kalifikatzea eta kirol-mota horren azpimotak zehaztea, Kirolaren Euskal Kontseiluren txostena aztertu eta gero.

19. artikulua.– Lurralde-federaziorik ez dagoenean.

Lurralde historiko batean kirol-mota bateko kirol-federaziorik ez badago, dagokion euskal federazioak bereganatuko ditu egiteko guztiak. Euskal federaziorik ez badago, dagokion foru-aldundiak gaitasuna eman ahal izango dio kirol-erakunde bati, gehienez bi urterako, behin edo gehiagotan, lurralde-federazioei dagozkien egiteko publikoak burutzeko.

20. artikulua.– Euskal federaziorik ez dagoenean.

Kirol-mota batean euskal federaziorik ez badago, Eusko Jaurlaritzak gaitasuna eman ahal izango dio lurralde-federazio bati edo, ez badago, edozein kirol-erakunderi, gehienez bi urterako, behin edo gehiagotan, euskal federazioei dagozkien egiteko publikoak burutzeko.

21. artikulua.– Kirol-federazio berriak eratzea.

1.– Kirol-federazio bat onartua izateko abiapuntuak hauek izan daitezke:

- a) Sortu berria izatea.
- b) Beste batetik banatzea.
- c) Lehendik zeuden bi edo gehiago bat egitea.

2.– Kirol arloan euskal federazio eta lurralde-federazio berriak eratzeko, beharrezkoa izango da, hurrenez hurren, Eusko Jaurlaritzak eta lurralde historikoetako foru-organismoek onartzea. Administrazio-onarpen hori emateko edo ukatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Jarduerak interes publikoa izatea.
- b) Jarduerak nahikoa ezarpen-maila edukitzea.
- c) Kirol-mota ofizialki onartuta egotea.
- d) Federazio berria ekonomikoki bideragarria izatea.
- e) Federazio berriak antolakuntza-gaitasuna edukitzea.

22. artikulua.– Lurralde-federazioak eratzea.

Lurralde-federazio bat eratzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Sorrera-akta estatutuak araudi bidez ezarritakoari lotuz aurkeztea.
- b) Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena.
- c) Foru-aldundi eskudunak onartzea.
- d) Kirol Erakundeen Erregistroan inskribitzea.

23. artikulua.– Euskal federazioak eratzea.

Euskal federazio bat eratzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Sorrera-akta eta estatutuak araudi bidez ezarritakoari lotuz aurkeztea.
- b) Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena.
- c) Eusko Jaurlaritzak onartzea.
- d) Kirol Erakundeen Erregistroan inskribitzea.

24. artikulua.– Onarpen ofiziala eta bakarra izatea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan euskal federazio bakarra onartu ahal izango da kirol-mota bakoitzeko. Lurralde historikoetan ere lurralde-federazio bakarra onartu ahal izango da kirol-mota bakoitzeko.

2.– Arau orokor horretatik kanpo geldituko dira ezintasun fisiko, psikiko, sentsorial edo mistoak dauzkaten kirolariak biltzen dituzten kirol anitzeko federazio hauek:

- Ezinduentzako Kirolen Arabako Lurralde Federazioa.
- Ezinduentzako Kirolen Bizkaiko Lurralde Federazioa.
- Ezinduentzako Kirolen Gipuzkoako Lurralde Federazioa.
- Ezinduentzako Kirolen Euskal Federazioa.

25. artikulua.– Administrazio-egiteko publikoak.

1.– Euskal federazioek eta lurralde-federazioek administrazio-egiteko hauek beteko dituzte:

- a) Lehiaketa ofizialak kalifikatzea, bideratzea eta baimentzea.
- b) Euskal kiroleko ordezkartza bideratzea Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan.
- c) Federazio-lizentziak ematea eta tramitatzea.
- d) Kirol-jarduerako indarkeria aurrezaintzea, kontrolatzea eta zigortzea.
- e) Dopatzea aurrezaintzea, kontrolatzea eta zigortzea.
- f) Kirol arloko diziplina-ahalmena erabiltzea.
- g) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak betetzea.
- h) Beren estatutuak eta araudiak onartzea.

i) Herri-administrazioarekin batera parte hartzea eta elkarlanean aritzea kirol-programak garatzen, batez ere goi-mailako kirolarientzako programetan eta eskola-kiroleko programetan.

j) Federazioetako hauteskunde-prozesuak kontrolatzea.

k) Araudi bidez eskuordetzan eman daitekeen beste edozein egiteko publiko.

2.– Kirol-federazioek ezingo dute inoiz beren gain dituzten egiteko publikoak eskuordetzan eman, administrazio eskudunak horretarako baimena ematen ez badie.

3.– Lurralde-federazioek eta euskal federazioek, hurrenez hurren, lurralde historikoetako foru-organoen eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin burutuko dituzte beren egitekoak. Horretarako, lankidetzaren hitzarmenak izenpetuko dituzte elkarren artean, eskuordetzan emandako egiteko publikoekin zuzenean lotutako helburuak, kirol-programak, aurrekontuak eta gainontzekoak zehazteko. Lankidetzaren hitzarmen horiek izaera juridiko-administratiboa edukiko dute.

4.– Lege honetan aurreikusitakoaren arabera Kirol Justiziako Euskal Batzordeak kontrola ditzakeen federazio-ekintzak lurralde historikoetako foru-organoen eta Eusko Jaurlaritzaren babesetik kanpo geratuko dira.

26. artikulua.– Federazioei atxikitzea.

1.– Pertsona fisiko eta juridikoak kirol-federazioetan sartzeko beharrezkoa izango da dagokion federazio-lizentzia ematea.

2.– Ezinbestekoa izango da pertsona fisiko eta juridikoak kirol-federazioetan sartuta egotea federazio-lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoan federazio-lizentzia bakarra izango da kirol-mota bakoitzeko. Lizentzia horrekin, titularra dagokion kirol-motako lurralde-federazioari eta euskal federazioari atxikita egongo da.

27. artikulua.– Euskal federazioak eremu handiagoko federazioetan sartzeari.

Euskal federazioak eremu handiagoko kirol-federazioetan sartu ahal izango dira. Nolanahi ere, eta parte-hartze hori bermatzeko, Euskadin federatutako pertsona fisiko edo juridikoek eskubidea izango dute, nahi izanez gero, eremu handiagoko kirol-federazioetan sartzeko, euskal federazioek federazio horietan ez sartzeari erabakitzen badute.

28. artikulua.– Babes-neurriak.

1.– Euskal federazioen eta lurralde-federazioen esku utzitako egiteko publikoak benetan betetzen direla bermatzeko, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, ekintza hauek burutu ahal izango dituzte, beti ere zigor-helbururik gabe:

a) Federazioen liburuak eta dokumentuak ikuskatzea.

b) Organo kolegiatuei dei egitea eskuordetzan emandako egiteko publikoekin zuzenean edo zeharka lotutako gaiak eztabaidatzeko eta erabakitzeko, aurretik deia egin ez bazaie.

c) Badaezpada eta arrazoiak emanez, eginkizunak kentzea organo kolegiatuetako buruari edo gainontzeko kideei, baldin eta, eskuordetzan emandako egiteko publikoekin zuzenean edo zeharka lotutako administraziozko edo diziplinazko ustezko arau-hauste larrien edo oso larrien ondorioz, kide horien aurka diziplina-espeditentea irekitzen bada.

d) Badaezpada eta arrazoiak emanez, gobernu-organoetako buru edo gainontzeko kideei beren eginkizunak kentzea, baldin eta eskuordetzan emandako egiteko publikoak bertan behera utzi badituzte.

e) Kontabilitatea eta kudeaketa kontu-ikuskatzeen edo bestelako ikuskatzeen menpe jar dezaten eskatzea.

f) Lege honetan araututako beste kirol-erakunde batzuei zenbait administrazio-egiteko publiko burutzeko gaitasuna ematea, baldin eta egiteko publiko horien garapena bermatzeko aparteko behar larria badago.

g) Eskuordetzan emandako egiteko publikoak zuzen betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren bestelako babes-neurriak hartzea.

2.– Kirol-federazioetako organo kolegiatuen buruari eta gainontzeko kideei beren eginkizunak kentzen bazaizkie, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek behin-behingo kontu-hartzaileak eta administratzaileak izendatu ahal izango dituzte.

29. artikulua.– Federazioen arauen berri ematea.

1.– Euskal federazioen estatutuak, bai eta estatutuotan izan litezken aldaketak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira dagokion administrazioak onartu eta gero.

2.– Lurralde-federazioen estatutuak, bai eta estatutuotan izan litezken aldaketak ere, dagokion lurralde-historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira dagokion administrazioak onartu eta gero.

3.– Lurralde-federazioen eta euskal federazioen araudiak, bai eta horietan izan litezken aldaketak ere, Kirol Erakundeen Erregistroan inskribituko dira dagokion administrazioak onartu eta gero.

30. artikulua.– Zuzendaritzako kideak.

1.– Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek federazioen zuzendaritzako kideak etengabe prestatzea eta doako aholkularitza teknikoa ematea sustatuko dute, zuzendariek beren egitekoak behar bezala bete ditzaten.

2.– Eusko Jaurlaritzak, Kirolaren Euskal Kontseiluaren eta kirol-federazioen laguntzarekin, kirol-erakundeen zuzendaritzako kideentzako estatutua onartuko du.

3.– Kirol-federazioen zuzendaritzako kideek lansaria jaso ahal izango dute. Lansari hori ezin izango da diru-laguntza publikoen kontura ordaindu eta agintaldia amaitzearekin batera bukatuko da.

4.– Kirolaren Euskal Eskolak zuzendaritzako kideak etengabe prestatzea sustatuko du bere zerbitzuekin zerikusia duten gaiei buruzko kurtsoak antolatuz.

31. artikulua.– Ekonomi eta ondare araubidea.

1.– Kirol-federazioek zeinek bere aurrekontuak eta ondarea administratzeko eta kudeatzeko arauak izango dituzte.

2.– Kirol-federazioek araudi bidez zehazten diren kontabilitate printzipio eta arauak aplikatuko dituzte. Halaber, finantza eta kudeaketa ikuskaritzak onartu beharko dituzte araudi bidez zehaztuko den eran.

3.– Euskal federazioek eta lurralde-federazioek ezin izango dute aurrekontu defizitariorik onartu, salbu eta Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, hurrenez hurren, baimendutako aparteko kasuetan.

4.– Kirol-federazioek ezin izango dute urte anitzeko gasturik konprometitu dagokion administrazioaren baimenik gabe, baldin eta gastu horiek araudiz ezartzen den portzentaia baino handiagoak badira eta federazioko buruaren agintaldia gainditzen badute.

5.– Euskal kirol-federazioek eta lurraldekoek industri, merkataritza edo lanbide ekintzak burutu ahal izango dituzte, baina lortutako irabaziak federazioen kirol-helburuetarako erabili beharko dituzte.

32. artikulua.– Herri-onurakotzat jotzea.

1.– Euskal federazioak eta lurralde-federazioak herri-onurako erakundeak izango dira.

2.– Herri-onurakotzat jotzeak ondorio hauek izango ditu:

a) Erakundearen izenaren ondoren «herri-onurakoa» kalifikazioa erabiltzeko eskubidea.

b) Kreditu ofizialak jasotzeko lehentasuna.

c) Kirol-ekipamenduetarako laguntzak jasotzeko eta diru-laguntza programetan sartzeko lehentasuna.

d) Lurralde historikoetako foru-organismoek herri-onurako erakundeen alde erabaki ditzaketen zerga-hobariak.

e) Beste xedapen batzuetan ezarritako onurak.

f) Kirolarekin zerikusia duten xedapen orokorrak prestatzeko orduan entzunak izateko eskubidea.

33. artikulua.– Desegitea.

Kirol-federazioak Batzar Nagusiaren erabakiz eta epailearen ebazpenez desegingo dira.

34. artikulua.– Ondarea zertan erabili.

Kirol-federazio bat desegiten denean, haren ondare garbia, egonez gero, antzeko ekintzetan erabili beharko da. Euskal federazio bat desegiten bada, Eusko Jaurlaritzak erabakiko du zertan erabili zehatz-mehatz, eta lurralde-federazio bat desegiten bada, foru-aldundiak.

35. artikulua.– Kirol-federazioen onarpena ezeztatzea.

1.– Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek ezeztatu egin ahal izango dute euskal federazioen eta lurralde-federazioen onarpena baldin eta lege honetako 21. artikuluan onarpen ofiziala izateko ezarritako baldintzaren bat betetzeari uzten badiote. Euskal federazioen edo lurralde-federazioen onarpena ezeztatzeko, beharrezkoa izango da Kirolaren Euskal Kontseiluaren txostena.

2.– Kirol-federazioen onarpena ezeztatzeak ondorio hauek izango ditu:

a) Kirol Erakundearen Erregistroko inskripzioa ofizioz ezeztatzea.

b) Lege honetan beren esku utzitako eskubide eta egiteko guztien titularitatea galtzea.

c) Desegin beharra.

3.– Kirol-federazioa desegiten ez bada, erantzukizun pertsonalak eskatu ahal izango dira; gainera, dagokion administrazio-organismoak desegite judiziala eskatzeko eskubidea edukiko du.

VI. KAPITULUA

EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNA

36. artikulua.– Euskal Kirol Federazioen Batasuna.

1.– Euskal Kirol Federazioen Batasuna nortasun juridikodun kirol-erakundea izango da. Batasunaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko kirola hobetzeko eta garatzeko oinarri komunak bilatzea, bere kirol-helburuak babestea eta hobeto betetzea eta kirol-federazioen administrazio-egitura edo laguntza teknikoa emateko egitura komunak ezartzea izango da. Halaber, bere eskumenen barruan, aholkularitza-eginkizunak edukiko ditu Euskadiko kirol-administrazioan, kirol-federazio bakoitzak bere kirol-esparruan duen berariazko aholkularitza-gaitasunaz gainera.

2.– Euskal Kirol Federazioen Batasunak euskal kirol-federazioak eta lurraldeetako kirol-federazioak ordezkatzeko ditu, kirol-federazio bakoitzak bere kirol-esparruan duen berariazko ordezkartzaren kalterik gabe.

37 artikulua.– Euskal selekzioak.

1.– Euskal Kirol Federazioen Batasunak behar hainbateko laguntza eta erraztasunak emango dizkie euskal federazioei, euskal selekzioek Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan parte hartzea sustatu eta bultzatu ahal dezaten federazio horiek.

2.– Euskal federazioen egitekoa izango da dagozkien kirol-motetan haietako bakoitzaren selekzioaren ordezkari izango diren kirolariak hautatzea.

38. artikulua.– Araubide juridikoa.

1.– Eratze, inskribitze, iraungitze, antolatze eta jarduteari dagokionez, Euskal Kirol Federazioen Batasunak lege hau, legea garatzen duten xedapenak, bere estatutuak eta araudiak, eta bere organoek balio osoz hartzen dituzten erabakiak izango ditu jarraibide.

2.– Euskal Kirol Federazioen Batasunaren estatutuek araudi bidez zehazten diren puntuak arautu beharko dituzte, demokrazia eta ordezkaritza printzipioen arabera finkatzeko dituzte bere barne-egitura eta jarduera-arauak, eta bere kideak kirol-federazio elkartu guztien boto aske, zuzen, berdin eta sekretuz hautatzeko modua zehaztuko dute.

3.– Euskal Kirol Federazioen Batasunaren estatutuak Eusko Jaurlaritzaren barruan kirol-eskumenak dituen sailak onartu beharko ditu eta Kirol Erakundearen Erregistroan inskribituko dira.

VII. KAPITULUA

KIROL ERAKUNDEEN ERREGISTROA

39. artikulua.– Izaera.

Kirol Erakundearen Erregistroaren Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumena duen sailari atxikitako zerbitzua izango da eta Euskal Autonomia Erkidegoan helbidea duten kirol-erakundeak inskribitzea izango du helburu.

40. artikulua.– Erregistro publikoa.

Kirol Erakundearen Erregistroa publikoa izango da eta edozein pertsonak edukiko du eskubidea kontsultatzeko. Publikotasuna araudi bidez zehazten den moduan gauzatuko da.

41. artikulua.– Erregistroan jaso beharreko egintzak.

Kirol Erakundeen Erregistroan egintza hauek jaso beharko dira:

- a) Kirol-klub, kirol-elkarte eta kirol-federazioen eratzea.
- b) Euskal Kirol Federazioen Batasunaren eratzea.
- c) Kirol-erakundeen estatutuen eta araudien onartzea eta aldatzea.
- d) Kirol-erakundeen ordezkaritza eta administrazio organoetarako hautatutako kideen izendatzea eta kargu-uztea.
- e) Kirol-klubak herri-onurakotzat jotzea.
- f) Kirol-erakundeen desegitea eta likidazioa.
- g) Kirol-federazioen onarpenaren ezeztatzea.
- h) Orokorrean, beste xedapen batzuek inskribitzeko agintzen dituzten egintzak.

42. artikulua.– Onurak eta lankidetzak.

1.– Kirol-erakunde bat Kirol Erakundeen Erregistroan inskribitzeak onarpen ofiziala ekarriko dio lege honen ondorioetarako. Erregistroan inskribituta egotea ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako berariazko kirol-programen diru-laguntzak jaso ahal izateko, kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eta kirol-leggedian jasotako gainontzeko onurez baliatzeko.

2.– Kirol Erakundeen Erregistroak babestu egingo ditu inskribitutako erakundeen izena eta sinboloak, izen eta sinbolo horiek edo antzekorik beste inork erabil ez ditzan.

3.– Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumena daukan sailak eskatzen zaion aholkularitza teknikoa eta laguntza emango die kirol-erakundeak sortzeko edozein proiektu martxan jarri nahi dutenei.

43. artikulua.– Araudi bidezko garapena.

Araudi bidez zehaztuko dira Kirol Erakundeen Erregistroaren egitura, egitekoak eta jardura-arauak, bai eta beste erregistro batzuekin informazioa trukatzeko sistema ere.

IV. TITULUA

KIROL LEHIAKETAK

44. artikulua.– Lehiaketen sailkapena.

1.– Lege honen ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan izango diren kirol-lehiaketak honela sailkatuko dira:

- a) Lehiaketa ofizialak eta lehiaketa ez ofizialak.
- b) Nazioarteko lehiaketak, Estatuko lehiaketak, Erkidegoko lehiaketak eta eremu txikiagoko lehiaketak.
- c) Profesionalentzako lehiaketak eta amateurrentzako lehiaketak.
- d) Kirol federatuko lehiaketak, eskola-kiroleko lehiaketak eta unibertsitate-kiroleko lehiaketak.

2.– Lege honen ondorioetarako, federazioek dagokion urteko egutegian ofizialtzat jotako lehiaketak izango dira lehiaketa ofizialak.

3.– Lege honen ondorioetarako, Eusko Jaurlaritzak profesionaltzat jotako lehiaketak izango dira lehiaketa profesional ofizialak.

45. artikulua.– Kirol-lehiaketak bideratzea, antolatzea, kalifikatzea eta baimentzea.

1.– Lehiaketa ofizialak bideratzea, kalifikatzea eta baimentzea lurralde-federazioei eta euskal federazioei dagokie. Federazioek elkarlanean aritu beharko dute kirol-lehiaketek egitura piramidal egokia izango dutela bermatzeko.

2.– Lehiaketak, ofizialak izan ala ez, edozein pertsona fisiko edo juridikok, publiko edo pribatuk, antolatu ahal izango ditu.

3.– Foru-aldundiei dagokie lurraldeko eskola-lehiaketak bideratzea, kalifikatzea eta baimentzea, eta Eusko Jaurlaritzari, Erkidegoko eskola-lehiaketen kasuan.

4.– Unibertsitate-lehiaketak bideratzea, kalifikatzea eta baimentzea unibertsitateei dagokie. Unibertsitateen arteko lehiaketetan egiteko horiek Eusko Jaurlaritzak beteko ditu Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordearen laguntzarekin.

5.– Aurreko zenbakietan aipatutako erakundeek izango dute, bakarrik, kasuan kasuko titulu ofizialak emateko gaitasuna.

46. artikulua.– Lizenziaren beharra.

Aurreko artikuluan aipatutako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, beharrezkoa izango da unibertsitateko edo eskolako federazio-lizentzia izatea, lege hau garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzekin bat etorritz.

47. artikulua.– Lizentziak ematea.

1.– Eskolako edo unibertsitateko federazio-lizentzia tramitzatzeko, beharrezkoa izango da osasun-azterketan gaitasun nahikoa dela erakustea araudi bidez zehazten den kirol-motetan eta xedapen horietan ezarritako baldintzei loturik. Araudiek osasun-azterketa mota ezberdinak ezarri beharko dituzte kirol-mota, kategoria, adin eta antzeko beste ezaugarri batzuen arabera.

2.– Lizentziak arau batzuen arabera emango dira, eta ezin izango da ematea ukatu eskatzaileak beharrezkoak diren baldintzak betetzen baditu.

3.– Dagokion lizentzia eskatu denetik araudi bidez zehaztutako epea pasatu bada, lizentzia emanda dagoela ulertuko da.

48 artikulua.– Lizentzien edukia.

Federazio, eskola eta unibertsitate lizentziek aseguru bat izango dute berekin, arrisku hauek estalduko dituen:

a) Erantzukizun zibila.

b) Kalte-ordainak, gorputz-atalak edo funtzioak galduz gero edo hilez gero.

c) Osasun-laguntza, osasun-sistema publikoak bere gain hartzen ez dituen kasuetan eta arloetan, baldin eta kirolariak beste aseguru baten bidez ez baditu estalduta arriskuak.

49. artikulua.– Federazio-lizentziak.

1.– Euskal federazioei eta lurralde-federazioei dagokie, hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoan federazio-lizentziak egitea eta tramitatzea.

2.– Araudi bidez zehaztuko da zeintzuk diren ekonomi eta jardunbide baldintzak lizentzia horiek tramitatzeko eta emateko.

3.– Euskal federazioek emandako lizentziek maila ofizialean lehiatzeko gaitasuna emango diete lizentzia horien titularrei.

4.– Kirolari federatuek euskal selekzioen eta lurralde-selekzioen deialdietara joan beharra edukiko dute lehiaketa ofizialean eta ofizialak ez direnetan parte hartzeko edo lehiaketa horiek prestatzeko.

5.– Eskola-lizentziak federazio-lizentzien baliokideak izango dira araudi bidez zehaztutako ondorioetarako.

50. artikulua.– Epaileen hutsak eta zuzenketak.

1.– Kirol-lehiaketak zuzentzeko ahalmena kirol-motetan aurrikusitako epaile-kategoriei dagokie.

2.– Kirol-lehiaketak zuzentzeko ahalmena erabiliz epaile horiek hartutako erabakiak zuzentzat joko dira, eta epaileen aktak lehiaketak behar bezala garatzeko beharrezko dokumentuak izango dira.

3.– Aurrekoa gorabehera, kirol-federazioek epaileen hutsak egiaztatzen dituzten proba-bideak arautu beharko dituzte, baldin eta kirol-motaren ezaugarrien arabera zuzentzeko modukoak badira.

51. artikulua.– Lehiaketen emaitzak aldatzea.

Diziplina-organoek aldatu ahal izango dituzte kirol-lehiaketen emaitzak baldin eta zigortutako arau-hausteez horretarako bide ematen badute, eta, bereziki, lehiaketaren emaitzak, zerbait eginez edo ez ginez, aurretiaz erabakitzea bilatu bada.

52. artikulua.– Klubek eta elkarteek beste lurralde historikoetako lehiaketetan parte hartzea.

1.– Badira klub edo elkarte batzuk beren helbidekotik kanpoko lurralde historiko batean aintzinatik lehiatu direnak. Halako kasuetan, bidezkoa izango da lehiaketa-jarduera hori burutu duten lurraldean dagokion kirol-federazioaren barruan jarraitzea.

2.– Lege hau indarrean jarri eta gero klub edo elkarte batzuek beren helbidekotik kanpoko lurralde historiko bateko kirol-federazio batean sartu nahi badute, beren helbideari dagokion kirol-federazioaren baimena eta sartu nahi duten federazioaren baimena beharko dute.

V. TITULUA

ESKOLA ETA UNIBERTSITATE KIROLA

I. KAPITULUA

ESKOLA-KIROLA

53. artikulua.– Kontzeptua.

Lege honen ondorioetarako, ikasleek nahitaezko eskolatze-aldian irakas-orduetatik kanpo egi-ten duten kirol-jarduera antolatua izango da eskola-kirola.

54. artikulua.– Eskola-kirolaren egitekoak eta ezaugarriak.

Eskola-kirolean, ahal dela, kirol anitz praktikatuko da eta lehiaketa-kirola ez da izango helburu bakarra. Horrela, ikasle guztiek hainbat kirol-mota ezagutu eta horietan aritzea lortu nahi da, zeinek bere borondate, gaitasun fisiko eta adinaren arabera.

55. artikulua.– Eskola-kirolerako programak.

1.– Lurralde historikoetako foru-organoek urtero onartuko dituzte eskola-kirolari buruzko programak. Programen helburuak hauek izango dira: ikasleei osotasuneko eskola-heziketa osatzea, ikasleen nortasuna modu orekatuan garatzea, gorputz eta osasun ezaugarri jakin batzuk lortzea, eta geroago kirola egiten jarraitzea posible egingo duen prestakuntza ematea.

2.– Bideak jarri beharko dira eskola-kirolerako programetan ezintasunak dituzten ikasleek beren ikaskideekin batera jarduteko modua izan dezaten. Batera jardutea ezinezkoa denean, ekintza bereziak antolatu beharko dira ezintasunak dituzten taldeentzat.

3.– Eskola-kiroleko urteko programetan sartuta daudenak izango dira, orokorki, hamabost urte-tik beherako ikasleentzako kirol-lehiaketak.

4.– Alabaina, araudiz ezarriko diren baldintzak betetzen badira, foru-aldundiek baimena emango dute 15 urtetik beherako ikasleentzat eskola-kiroleko urteko programetan sartuta ez dauden kirol-lehiaketak antolatzeko, ikasle horiek federazio-lehiaketetan parte hartzeko, bai eta zenbait kirol-motatan teknifikazio-unitateak garatzeko ere.

56. artikulua.– Egituraketa.

1.– Eskola-garaian egiten den kirola, funtsean, ikastetxeen bitartez egituratuko da kirol klub eta elkarteetako ikasleen guraso-elkarteen lankidetzak aktiboarekin.

2.– Kirol-federazioak, funtsean, laguntza teknikoa emateaz arduratuko dira eta horrelako programak antolatzeko eta aurrera eramateko laguntza emango dute.

3.– Udalak elkarlanean ariko dira ikastetxeekin eta foru-aldundiekin eskola-kirolerako programak egoki garatzeko. Horretarako, batipat, udalaren kirol-ekipamenduak erabiltzen utziko dute.

II. KAPITULUA

UNIBERTSITATE-KIROLA

57. artikulua.– Kontzeptua.

Lege honen ondorioetarako, unibertsitate-elkarteko kideek, berek bakarrik, unibertsitateen kirol-programen barruan burutzen dituzten kirol-jarduera guztiak, aisialdikoak nahiz lehiakoak, joko dira unibertsitate-kiroltzat.

58. artikulua.– Unibertsitateen autonomia.

1.– Unibertsitateei dagokie, publikoei zein pribatuei, beren autonomi esparruaren barruan, unibertsitateen kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea egoki deritzen irizpideen eta antolakuntza-egituraren arabera.

2.– Autonomia horri kalterik egin gabe, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako unibertsitateen artean burutzen diren unibertsitate-kiroleko ekintzak bideratzeko eta koordinatzeko beharrezkoak diren xedapenak emango ditu Eusko Jaurlaritzak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortuko du. Batzorde hori aholkularitza-organoa izango da, eta osaera, izendapen-modua, jarduera-arauak eta egitekoak araudi bidez zehaztuko dira.

59. artikulua.– Aginte publikoen lankidetzatza.

Aginte publikoek laguntza emango diete unibertsitateei beren eremuan kirol-praktika zabaltzeko programetan.

60. artikulua.– Lehiaketa ofizial federatuetan parte hartzea.

Unibertsitate-eremuan eratzen diren kirol-elkartek, lehiaketa ofizial federatuetan parte hartu nahi badute, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundearen Erregistroan inskribitu beharko dute eta dago-kion federazioan kideku.

VI. TITULUA

IKERKETA ETA KIROL TEKNIKARIEN PRESTAKUNTZA

61. artikulua.– Ikerketa.

Aginte publikoek, kirolaren kalitatea hobetzeari begira, ikerketa zientifikoaren garapena bultzatuko dute kirolarekin zerikusirik daukaten arloetan. Halaber, lortutako emaitzen zabalkundea eta erabilpena sustatuko dute.

62. artikulua.– Titulazioak eskatzea.

1.– Kirolarekin zuzenean lotutako zerbitzuak, hots, irakaskuntza, zuzendaritza, kudeaketa, entrenamendu, sustapen eta bestelakoak, eskaini ahal izateko, aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, dagokion titulu ofiziala eskatuko dute. Lege hau garatzeko xedapenen bidez zehaztuko da norainokoa izango den bateko eta besteko eremuetan titulazioen nahitaezkotasuna.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoak, bai eta kirol-federazioak ere, aurreko zenbakian ezarritako eskakizuna behar bezala betearazteaz arduratuko dira.

63. artikulua.– Kirol-federazioek eskatutako titulazioak.

Ofizialki aitortutako zentroek emandako tituluak onartu beharko dituzte federazioen esparruan ekintza teknikoak burutzeko titulazio-baldintzak jartzen dituzten kirol-federazioek.

64. artikulua.– Kirol-teknikarien prestakuntza.

1.– Eusko Jaurlaritzak, kirol-federazioen eta Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearen parte-harztearekin, kirol arloko teknikarien prestakuntza bultzatuko du. Era berean, kirol irakasketei eta titulazioei buruzko arauak emango ditu.

2.– Kirol-teknikarien prestakuntza Eusko Jaurlaritzak aitortutako zentro publiko edo pribatueta burutuko da.

65. artikulua.– Kirolaren Euskal Eskola.

1.– Kirolaren Euskal Eskola Eusko Jaurlaritzaren administrazio-zerbitzua izango da eta kirol arloko eskumenak dituen sailari atxikita egongo da. Eskolak egiteko hauek izango ditu:

a) Kirol-teknikariak prestatzeko programak planifikatzea eta koordinatzea.

b) Zuzendariak eta epaileak prestatzeko programak planifikatzea eta koordinatzea, kirol-federazioen berariazko programen arabera.

c) Kirol arloko ikerketa teknikoen programak sustatzea eta bultzatzea.

d) Kurtso, zentro, titulazio eta bestelako informazio interesgarrien erregistroa sortzea eta kudeatzea.

e) Kirol arloko azterlanak ezagutaraztea.

f) Kirol-dokumentazioko zerbitzua antolatzea.

g) Kirol-teknifikazioko kurtsoak, mintegiak, hitzaldiak eta gainerako programak antolatzea edo egitea.

h) Kirol-federazioei eta beste zentro batzuei aholkularitza ematea teknikariak eta epaileak prestatzeko programetan.

i) Araudi bidez egotzitako bestelako egitekoak.

2.– Kirolaren Euskal Eskolak Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearekin eta Teknika Hobekuntzarako Zentroarekin eta euskal kirol-federazioekin batera jokatu du bere giza baliabideak eta baliabide materialak ahalik ondoen erabiltzeko.

3.– Araudi bidez zehaztuko da Kirolaren Euskal Eskolaren antolakuntza, eskumenak eta jarduera.

VII. TITULUA

KIROLARIAK LAGUNTZEA ETA BABESTEA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

66. artikulua.– Kirolariak.

1.– Lege honen ondorioetarako, kirola egiten duen edozein pertsona joko da kirolaritzat, nahiz eta federatuta ez egon edo kirol-lehiaketetan parte ez hartu.

2.– Aginte publikoek eta erakunde pribatuek kirolari guztiak lege honetan araututako federazio-egituretan sartzeari sustatuko dute, kirolariek laguntza eta babes egokiena eduki dezaten.

67. artikulua.– Atxikipen-eskubideak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako erakundeen artean ezin izango da atxikipen, luzapen, prestakuntza, konpentsazio edo antzeko eskubiderik eskatu hamasei urtetik beherako kirolariengatik.

2.– Hamasei urtetik gorako kirolarientzat, eta aurreko zenbakian aurreikusi gabeko gainontzeko kasuetan, horrelako eskubideak ezarri ahal izango dira, Eusko Jaurlaritzak aurretiaz araututako irizpide, baldintza, muga eta ondorioei lotuta.

3.– Aginte publikoek eta kirol-federazioek sustapen-neurriak hartu beharko dituzte kirol-elkarte guztiak oinarriko kirolean lan handia egin dezaten. Halaber, babes-neurriak hartu beharko dira elkarte horiek oinarriko kirola sustatzeko egiten duten lana neurritz gainekoa izan ez dadin.

II. KAPITULUA

GOI-MAILAKO KIROLA

68. artikulua.– Interes publikoa.

Goi-mailako kirola herriaren interesekotzat joko da Euskal Autonomia Erkidegoaren kirol-garapenerako funtsezko faktorea den aldetik, eragingarria handia baita oinarriko kirola sustatzeko eta ordezkartza-egiteko garrantzitsua baitu Estatuko eta atzerriko kirol-lehiaketa ofizialetan.

69. artikulua.– Kalifikazioa.

Eusko Jaurlaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirola bideratzea, bultzatzea eta kontrolatzea. Horretarako, kirolari, epaile edo teknikariak goi-mailakotzat jotzeko irizpideak eta baldintzak jarriko ditu, Kirolaren Euskal Batzordeak aurretiaz txostena eginda eta dagokien federazioen aholkularitza izanik.

70. artikulua.– Laguntza-programak.

1.– Eusko Jaurlaritzak goi-mailako kirola laguntzeko onartutako programek lehentasuna emango diete profesionalak ez diren kirolariei, eta beren funtsezko helburua goi-mailako kalifikazioa lortzen duten kirolari, epaile eta teknikariei beren kirol-prestakuntzarako baliabide egokiak eskaintzea

izango da, baita eta zientzia, hezkuntza eta osasun laguntza egokia ematea eta beren lanbide eta gizarte integrazioa erraztuko duten bestelako neurriak hartzea.

2.– Goi-mailako kirola laguntzeko programetan laguntzak jasoko dira ezintasun fisiko, psikiko, sensorial edo mistoak izanik beren egoerari dagozkion lehiaketetako elitean parte hartzen duten kirolarientzat ere.

3.– Etorkizun handiko kirolarientzat foru-aldundiek onartutako laguntza-planekin osatuko dira programa horiek. Lege honen ondorioetarako, lehiaketetan goi-maila lortu ez arren horretarako gaitasuna erakusten duten kirolariak joko dira etorkizun handiko kirolaritzat.

71. artikulua.– Teknika Hobekuntzarako Zentroa.

Teknika Hobekuntzarako Zentroa Eusko Jaurlaritzaren administrazio-zerbitzua izango da eta kirol arloko eskumenak dituen sailari atxikita egongo da. Zentroaren egitekoa kirolari federatuak, batez ere goi-mailakoak, osotasunean aholkatzea, ebaluatzea eta kontrolatzea izango da.

Araudi bidez zehaztuko eta garatuko dira zentroaren berariazko eginkizunak.

72. artikulua.– Goi-mailako kirol-zentroak.

Goi-mailako kirolariak prestatzeko, Eusko Jaurlaritzak, zuzenean edo edozelako erakunde publiko edo pribatuekiko hitzarmenen bitartez, goi-mailako kirol-zentroak sortzea eta jardutea bultzatuko du. Teknikifikazio-programak eta entrenamendu-plan bereziak kirol-zentroek egingo dituzte, kirol-federazioen laguntzarekin. Programa horiek Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumenak dituen sailaren baimena izan beharko dute.

73. artikulua.– Goi-mailako kirolarientzako onurak.

Goi-mailako kirolaritzat jo izanak onura hauek jasotzeko aukera ekarri ahal izango du:

- a) Diru-laguntzak eskuratzea.
- b) Teknika hobetzeko zentroen programetan eta goi-mailako kirol-zentroen kirol-programetan sartzeari.
- c) Kalifikazio hori merezimendu ebaluagarritzat jotzea administrazio publikoetan kirol-jardueraekin zerikusia daukaten lanpostuetan sartzeko.
- d) Toki-kopuru gehigarri bat gordetzea ikasketan unibertsitarioetan edo ez unibertsitarioetan sartzeko, beti ere baldintza akademikoak betez gero.
- e) Ikasketak eta kirol-jarduera bateragarriak egitea, neurri akademiko bereziak hartuz.
- f) Kirol-teknikari tituluak lortzeko ikasketetan sartzeko probetarako araudi bidez zehaztutako eskakizunetatik salbuetsita gelditzea.
- g) Eusko Jaurlaritzak erakunde publiko edo pribatuekin kirolari hauek lanbideratzen laguntzeko izenpetzen dituzten hitzarmenetatik datozen guztiak.
- h) Eusko Jaurlaritzak araudi bidez ezartzen dituenak.

74. artikulua.– Goi-mailako kirolariaren estatutua.

Eusko Jaurlaritzak, kirol-federazioen eta Kirolaren Euskal Batzordearen aholkularitzaz, goi-mailako kirolarientzako estatutua onartuko du.

75. artikulua.– Enplegu-baldintzak.

1.– Aginte publikoek laguntza emango dute goi-mailako kirolariak beren enplegua entrenamenduei eta lehiaketa ofizialei egokitzeko modua izan dezaten, horretarako behar diren xedapen eta akordioak hartuz.

2.– Administrazio publiko guztiek merezimendu ebaluagarritzat joko dute «goi-mailako kirolaria» kalifikazioa dagokion kirol-jarduerarekin lotutako lanpostuak betetzeko hautatze-prozesuetan eta lehiaketetan, beti ere berariazko merezimenduak baloratzea aurreikusita baldin badago.

III. KAPITULUA

ARRISKUEN ESTALDURA ETA ERANTZUKIZUN ZIBILA

76. artikulua.– Aginte publikoen betebeharra.

Euskadiko aginte publikoek eta kirol-federazioek, beren eskumen-esparruaren barruan, edozein kirol-jarduera burutzerakoan izan daitezkeen arriskuetatik behar bezala babesteko arauak eta erabakiak hartuko dituzte.

77. artikulua.– Erantzukizun zibileko aseguruak.

Kirol-zentroak ustiatzeko, kirol-jarduerak antolatzeko eta kirol-zerbitzuak eskaintzeko, ezinbestekoa izango da erantzukizun zibileko aseguru-kontratu bat egitea, erabiltzaileek, parte-hartzaileek eta beste edozeinek instalazioen egoeraren ondorioz edo instalazioetan burututako jardueraren ondorioz izan litzaketen kalteei erantzun ahal izan dakien. Poliza horien gutxienezko babesak araudi bidez ezarriko dira instalazio eta jardueren ezaugarrien arabera.

IV. KAPITULUA

OSASUN-LAGUNTZA ETA KIROL-MEDIKUNTZA

78. artikulua.– Osasun-laguntza.

1.– Osasun-sistema publikoak emango du euskal herritarrek Autonomia Erkidegoan egindako kirol-jarduerari erantzuteko lehen mailako larritasuneko osasun-laguntza orokorra, baldin eta lege honen 48. artikuluan aurreikusita ez badago jarduera horretarako nahitaezko aseguruak.

2.– Osasun-sistema publikotik kanpo geldituko dira kirol-medikuntzako zerbitzuak, eta bereziki hauek:

a) Osasun-azterketak egitea eta kirola egiteko gaitasunari eta egokitasunari buruzko txostenak eta ziurtagiriak prestatzea.

b) Maila bateko edo besteko kirolariak prestatzeko prozesuek eskatutako osasun plangintza, kontrola eta jarraipena.

c) Dopatzearen aurkako kontrola planifikatzea, kudeatzea eta burutzea.

d) Kirolariak birgaitzea, kirol-lesioen ondorioz galdutako funtzioak berreskuratzea, eta presaka eta berehala eman beharrekoak ez diren prestazioak edo osasun-sistema publikoaren prestazioetatik kanpo gelditzen direnak.

e) Lesioei aurrea hartzea.

f) Kirol-ergonomia.

Horrez gainera, hitzarmenak eta itunak izenpetu ahal izango dira zentro publikoekin eta pribatuekin.

3.– Kirol arloko eskumena duten administrazio publikoek osorik edo zati batean finantzatuko dituzte kirol-medikuntzako zerbitzuak.

79. artikulua.– Kirol-ekintzak debekatzea eta osasuna babestea.

Eusko Jaurlaritzak, pertsonen osasuna babestu beharra herri-intereseko kontua denez gero, modu orokorrean debekatu ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait kirol-ekintza antolatzea.

Era berean, arriskua dakarten eta debekatuta ez dauden kirol-moten kasuan, nahitaezko aseguruak egitea eskatu ahal izango du erantzukizun zibila, ezintasun eta heriotzagatiko kalteordainak eta parte-hartzailearen osasun-laguntza estaltzeko.

80. artikulua.– Ikerketa eta espezializazioa.

Euskadiko aginte publikoek kirol-medikuntzaren arloko ikerketa eta espezializazioa sustatuko dute, helburu hauek lortzeko:

- a) Kirola egiteko gaitasun fisikoa egoki kontrolatzea, pertsonen osasuna babesteko.
- b) Kirola egiten dutenei aholkuak eta argibideak ematea.
- c) Kirolariek kirola egitean beren kausaz edo bestelako kausaz istripuak izateari aurrea hartzea.
- d) Kirolarien errendimendua hobetzea.

81. artikulua.– Kirol Medikuntzaren Euskal Zentroa.

Kirol Medikuntzaren Euskal Zentroa Eusko Jaurlaritzaren administrazio-zerbitzua izango da eta kirol arloko eskumenak dituen sailari atxikita egongo da. Zentroak egiteko hauek izango ditu:

- a) Goi-mailako kirolariei osasun-kontrolak egitea.
- b) Kirol-medikuntzaren arloan ikertzea.
- c) Erakunde publiko eta pribatuei aholkularitza teknikoa ematea era bateko edo besteko kirol-programak egiteko, batez ere goi-mailako kirolari dagokionez.
- d) Kirol-medikuntzarekin zerikusia duten irakas-lanetan laguntzea, batez ere kirol-teknikarien prestakuntzan.
- f) Eusko Jaurlaritzak araudi bidez ematen dizkion eginkizunak.

82. artikulua.– Kirol-medikuntzan espezializatutako laguntza-unitateak.

Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek kirol-medikuntzan espezializatutako laguntza-unitateak sortzea eta jardutea bultzatuko dute. Osasun eta kirol laguntza erabat bermatzeko, administrazio publiko horiek hitzarmenak edo itunak izenpetu ahal izango dituzte zentro pribatuekin.

83. artikulua.– Osasun-azterketak eta kirolariaren osasun-txartela.

1.– Kirolaren alorrean Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailak arautuko du kirolariek, haien gaitasun fisikoa kontrolatze aldera, nahitaez egin beharreko azterketa medikoaren jardunaren baldintzak eta betebeharra. Horrelako azterketa medikoak ezinbestekoak dira, federazio-, eskolaeta

unibertsitate-lizentziak emateko, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak baldintza fisiko gogorreko jardueratzat hartzen dituen probetan parte hartzeko.

2.– Azterketa medikoetako datuak eta kirolarien osasunarekin zerikusia duten beste informazio batzuk kirolariaren osasun-txartelean erantsiko dira, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

VIII. TITULUA

KIROL EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

88. artikulua.– Plangintza.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-ekipamenduen plangintza dagozkion lurralde-antolamendurako eta hiri-antolamendurako tresnen bidez egingo da. Plangintza hori egiterakoan arreta berezia eskainiko zaie kirol arloko irizpide teknikoei.

2.– Tresna horiek egiterakoan, dagozkion kirol-federazioen partaidetza sustatuko da, eta printzipio hauek hartuko dira kontuan:

a) Aisialdi eta kirol eremuak eta kirol-gune ezohikoak sortzea eta mantentzea bermatu beharko dute, herritar guztiek kirola egiteko modua izan dezaten.

b) Lehentasuna eman beharko diote kirol anitzeko ekipamenduak sortzeari.

c) Azpiegitura-defizit handiena duten esparruetan egin beharko dituzte inbertsioak, lurralde-oreka lortzeko gune funtzionalen artean. Horretarako, udalaz gaineko kirol-azpiegiturak egin beharko dira, herrigune hainbati zerbitzuak emateko modukoak.

d) Kirol-instalazioen neurria eta kokapena zehazterakoan oso kontuan hartu beharko dira ikastetxeak.

89. artikulua.– Kirol-ekipamenduak unibertsitateaz besteko ikastetxeetan.

Hezkuntza-administrazioak, zentro pribatuen eta udalen laguntzarekin, unibertsitateaz besteko ikastetxeetako kirol-ekipamenduak kirol anitz egiteko baliagarriak izan daitezten eta irakas-orduetan nahiz irakas-orduetatik kanpo erabiltzea bermatzeko giza baliabideak izan ditzaten sustatuko du.

90. artikulua.– Kirol-ekipamenduak unibertsitateetan.

1.– Unibertsitateko kideek kirola-egiteko beharrezkoak dituzten kirol ekipamenduak eta zerbitzu osagarriak eduki beharko dituzte unibertsitateek.

2.– Eusko Jaurlaritzak araudi bidez zehaztuko du zein kirol ekipamendu eta zerbitzu eduki beharko dituzten unibertsitateek.

91. artikulua.– Kirol-ekipamenduen arloko kirol-politika.

1.– Eusko Jaurlaritzari dagokio kirol-ekipamenduen arloan, eta bereziki Erkidegoaren intereseko ekipamenduetan, jarraitu beharreko kirol-politikaren esparru orokorra zehaztea.

2.– Zatikako lurralde-planak eta/edo arlokako lurralde-planak izango dira kirol-ekipamenduen lurralde-ezarpenera erabakiko duten lurralde-antolamendurako tresnak.

92. artikulua.– Kirol-ekipamenduen araudia.

1.– Eusko Jaurlaritzak kirol-ekipamenduei buruzko xedapen batzuk emango ditu puntu hauek arautzeko:

- a) Tipologia.
- b) Kirol arloko ezaugarri teknikoak.
- c) Segurtasun eta higiene baldintzak.
- d) Eraikitze-baldintzak.
- e) Kokatze-irizpideak eta ingurune-eragina.
- f) Ezintasunak dituzten pertsonak sartzeko eta baliatzeko irizpideak.
- g) Abian jartzea, erabiltzea eta zaintzea.
- h) Arautu beharra ikusten den beste edozein puntu.

2.– Kirol-ekipamenduek sarbide erosoak izan beharko dituzte eta ez dute edukiko ezinduak arazorik gabe ibiltzea galaraz lezakeen hesirik edo oztoporik. Era berean, ezinduek arazorik gabe erabiltzeko hornituta egon beharko dute kirol-guneek, beti ere gunehorietan egiteko diren kirolen ezaugarriek posible egiten badute.

3.– Herritarrek erabiltzekoak diren ekipamenduek, publikoek nahiz pribatuek, aurreko araudia bete beharko dute. Udalak araudi hori udalerrian kokatutako kirol-instalazio guztietan bete dadin arduratuko dira.

4.– Udalek ikuskatzeak egiteko eskumenak izango dituzte, eta Herrizaingo Sailak ere ikuskizunen eta aisialdiko jardueren ikuskatzeak egiteko eskumenak izango ditu. Horiez gainera, Osakidetza kirol-ekipamenduen higiene eta osasun baldintzak bete daitezela arduratuko da.

93. artikulua.– Kirol Ekipamenduen Arlokako Lurralde Plana.

1.– Lurralde historikoetako foru-organismoek, lurralde historiko bakoitzaren beharren eta bereiztasunen arabera, kirol-ekipamenduen arlokako lurralde-planak onartzeko eskumena izango dute Lurralde Antolamendurako Norabideak garatzeko. Planen helburuak hauek izango dira:

- a) Oinarrizko kirol-ekipamenduen mapa bat taxutzea, dagokion lurralde historikoko udalerriri eta eskualde guztiak banan-banan aztertu eta gero.
- b) Oinarrizko kirol-ekipamendua bermatu ondoren, prozesua osatzea, kirol-ekipamenduen sare egokia edukitzeko.
- c) Eskualde bakoitzean ekipamenduak eraikitzea sustatzea eta kirol-zerbitzuen kudeaketa bultzatzea.

2.– Era berean, aipatutako planak burutzeko finantzaketa-planak onartzeko eskumena izango dute foru-organismoek.

94. artikulua.– Kirol-ekipamenduetarako udal-planak.

Udalek plangintza-tresnak onartu beharko dituzte kirol-instalazioen arloan, eta horretarako, kirol-ekipamenduen arlokako lurralde-planetan jasotako norabideak jarraitu beharko dituzte.

95. artikulua.– Kirol-zentroak.

1.– Kirol-zentroak jendearentzat zabalik egongo diren kirol-instalazioak izango dira, eta zentrozen titularrek prezio baten truke instalazioen erabilera eskainiko die beste batzuei edo irakaskuntzarekin, entrenamenduekin eta sustapenarekin lotutako kirol-zerbitzuak eta horien antzekoak edo osagarriak diren beste zerbitzu batzuk emango dituzte. Zentro horiek Eusko Jaurlaritzak arautuko ditu araudi bidez.

2.– Merkataritza-izaerako kirol-zentroak argi eta garbi bereizi beharko dira kirol-klubetatik. Kirol-klubek ezingo dute merkataritza-izaerako kirol-zentrozen antzeko izena edo helbide bera eduki.

3.– Aurreko debekua gorabehera, kirol-zentrozen baitan kirol-elkarteak sortu ahal izango dira lege honen 12. atalean ezarritakoari lotuta, erabiltzaileek zentrozen jarduera federatuetan parte hartu ahal izan dezaten.

4.– Kirol-zentroek, erakunde titularra edozein dela, gutxienez argibide hauek eman beharko dituzte leku ageri eta nabarmen batean:

- a) Instalazioaren titularitatea eta, bereizita dauden kasuan, ustiaketaren titularitatea.
- b) Emandako administrazio-lizentziak.
- c) Instalazioaren ezaugarri teknikoak.
- d) Onartutako gehienezko edukiera.
- e) Kirol-zerbitzuak ematen dituzten pertsonen izenak eta titulazioak.
- f) Eskainitako kirol-zerbitzuak.
- g) Zerbitzu horien kuotak edo tarifak.
- h) Erabiltzeko eta jarduteko arauak.
- i) Arriskuen estaldura.
- j) Araudi bidez ezartzen den beste edozein jakingarri.

5.– Naturgunean egiten diren abenturako kirol-jarduerak araudi-xedapen berezi batez arautuko dira.

96. artikulua.– Kirol-ekipamenduen erroldak.

1.– Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek beren lurralde-esparruko kirol-ekipamendu publiko eta pribatuen errolda egin eta eguneratu beharko dute urtero. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak araudi bidez onartu dituen irizpide komunak erabiliko dira.

2.– Kirol-ekipamendu horien titularitatea duten erakundeek, publikoek nahiz pribatuek, dago-kion errolda egiteko eta eguneratzeko eskatzen zaizkien datu guztiak eman beharko dituzte.

97. artikulua.– Diru-laguntzak.

Kirol-ekipamenduak eraiki, eraberritu, handitu, mantendu edo ustiatzeko diru-laguntza publikoak jaso ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Ekipamenduek Eusko Jaurlaritzak onartutako araudian ezarritakoa betetzea.

b) Erabilera pribatu hutserako ez izatea. Herri-onurako aitortzen duten kirol-elkarteen kirol-ekipamenduen erabilera ez da erabilera pribatu hustzat joko.

c) Denen intereseko kirol-programetarako ekipamenduak doan erabiltzen uzteko hitza ematea, araudi bidez zehaztuko diren mugekin.

d) Organo eskudunek oinarritzko ekipamenduetarako onartutako irizpideen barruan sartuta egotea.

e) Kirol-ekipamenduen arlokako lurralde-planetan jasotako lehentasun-programari egokitzea.

98. artikulua.– Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatuak.

Eusko Jaurlaritzak araudi bidez zehaztuko du zein kirol-zentrok eduki beharko dituen ezinbestean Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua den baten zerbitzuak, bai eta lizentziatu horren baldintzak, egitekoak eta erantzukizunak ere.

IX. TITULUA

KIROL LEHIAKETETAN INDARKERIARI AURREA HARTZEA

99. artikulua.– Kiroleko indarkeriaren aurkako batzordea.

1.– Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumenak dituen sailaren egituraren barruan, Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea eratuko da. Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, udalen eta kirol-federazioetako ordezkarien eta kirol eta segurtasun esparruan izen handia duten pertsonak, baita euskal unibertsitateko zientzi arlokoek ere, osatuko dute.

2.– Hauek izango dira batzordearen eginkizunak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen diren kirol-lehiaketetan gertatutako indarkeriari buruzko datuak urtero jasotzea eta argitaratzea.

b) Kiroleko indarkeriaren eragileei eta ondorioei buruz txostenak eta ikerketak egitea.

c) Aurre-hartze ekintzak sustatzea.

d) Klubei, elkartei, kirol-federazioei eta kirol-lehiaketak antolatzen dituzten gainontzeko erakundei edo pertsonari eta kirol-instalazioen titularrei aholkuak ematea.

e) Kirol-lehiaketei, kirol-diziplinari eta kirol-instalazioei dagozkien xedapen-proiektuei buruz iritzia ematea.

f) Indarkeria kirolek erazteko lagungarri den beste edozein egiteko.

3.– Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordeak eta Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko Jardueren Euskal Kontseiluak, zeinek bere eskumenen esparruan, behar diren lankidetzak-neurriak hartuko dituzte aginduta dauzkaten eginkizunak hobeto betetzeko.

100. artikulua.– Kirol instalazioetako aurre-hartze neurriak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan lehiaketa ofizial profesionalak jasotzen dituzten kirol-instalazio guztiek sarrera-txartelak eta sarbidea bera informatikaren bidez kontrolatzeko eta kudeatzeko sistema eduki beharko dute. Halaber, instalazio horietan antolakuntza kontrolatzeko unitate bat egongo da, toki estrategiko batean kokatuta eta behar diren baliabide teknikoekin hornituta.

2.– Aurreko zenbakian aipatutako kirol-instalazioetan ikuslekuak zenbatuak izango dira eta ikusle gutzientzako eserlekuak edukiko dituzte.

101. artikulua.– Lehiaketa ofizial profesionalen berri ematea.

Aurreko artikuluan aipatutako lehiaketen antolatzaileek, aurretiaz eta nahiko denboraz, araudi bidez zehaztuko den eran, lehiaketen berri eman beharko diote Eusko Jaurlaritzan polizi arloko eskumenak dituen sailari.

102. artikulua.– Segurtasun-koordinatzailea.

Araudi bidez zehaztuko da kirol-lehiaketetako segurtasun-koordinatzailearen kargua. Kargu hori Eusko Jaurlaritzan polizi eskumenak dituen sailaren egituraren txertatuko da eta kirol-lehiaketetan segurtasuna koordinatzea eta antolatzea izango du eginkizun.

103. artikulua.– Debekuak.

Kirol-lehiaketak jasotzen dituzten instalazioetan debekatuta egongo da:

- a) Edari alkoholodunak sartzea eta saltzea.
- b) Indarkeriara bultzatzen duten sinboloak, esaldiak edo ikurrak sartzea eta erakustea. Debe-kuha hausten dutenei galarazi egingo zaie instalazioetan sartzea.
- c) Arma eta jaurtigai oro sartzea. Halako gaiak sartu nahi dituztenei galarazi egingo zaie sarrera.
- d) Bengalak edo su artifizialak sartzea. Halako gaiak sartu nahi dituztenei galarazi egingo zaie sarrera.

104. artikulua.– Segurtasun-neurriak eta erantzukizunak.

1.– Kirol-ekitaldien antolatzaileek eta kirol-instalazioen jabeek beharrezko segurtasun-neurriak bermatu beharko dituzte kirol-esparruetan, horretarako legez eta araudiz ezarritakoari lotuz.

2.– Eusko Jaurlaritzak araudi bidez zehaztuko ditu larrialdietarako plana ezinbestean izan beharko duten kirol-instalazioak eta plan horren gutxieneko edukiak.

3.– Segurtasun arloko aginduak ez betetzea administrazio arau-haustetzat joko da eta admin-istrazio-erantzukizunak eskatzea ekarriko du. Horrez gainera, kirol-diziplinako neurriak hartu eta erantzukizun zibil eta penala eskatu ahal izango dira.

X. TITULUA

DIZIPLINA ARAUAK

105. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Diziplina-araubideak joko eta lehiaketa arauen hausteak eta kirol-federazioen arauen hausteak hartuko ditu bere baitan. Horretarako, arau-hausteok jasota egon beharko dute lege honetan, legearen araudi-xedapenetan eta kirol-federazioek dituzten eta Kirol Erakundeen Erregistroan behar bezala inskribituta dauden estatutuetan eta araudietan.

2.– Klubek bazkideekiko duten diziplina-ahalmenean beren arauak izango dituzte jarraibide; gainera, ahalmen hori dela-eta ezin izango da errekurtsorik jarri kirol-federazioetan eta Kirol Jus-tiziako Euskal Batzordean.

3.– Estatu-eremuko kirol-lehiaketak direla-eta egindako arau-hausteez Estatu-eremuko dizi-plina-arauak izango dituzte jarraibide.

4.– Kirol arloko dizi-plina-araubidea bada ere, erantzukizun zibila, penala edo bestelakoa eskatu ahal izango da eta erantzukizun-motari dagozkion arauak izango ditu jarraibide.

106. artikulua.– Dizi-plina-ahalmena.

1.– Kirol arloko dizi-plina-ahalmenak esku ematen die zenbait organori beren kirol-dizi-plinaren menpean dauden pertsonak ikertzeko, eta, hala badagokio, zigortzeko.

2.– Antolakunde hauek balia daitezke dizi-plina-ahalmenaz:

- a) Kirol-federazioak; federatutako pertsona fisiko edo juridiko guztien gainean dute eskumena.
- b) Eskola eta unibertsitate kirolaren eremuan eskumenak dituzten organoak, kirol-esparru horietako parte-hartzaileen gainean.
- c) Kirol Justiziako Euskal Batzordea, gorago aipatutako pertsonen eta erakundeen gainean.

3.– Proben edo partiden zuzendaritza-ahalmenaz baliatzea ez da kirol arloko dizi-plina-ahalmen-tzat joko, zuzendaritza-ahalmen hori jarduera-epaileei baitagokio kasuan kasuko kirol-motaren arau teknikoak aplikatuz.

107. artikulua.– Dizi-plina-xedapenak.

Eusko Jaurlaritzak eskola eta unibertsitate kirolaren eremuan, eta Euskadiko kirol-federazioek, dizi-plina-araudiak onartuko dituzte. Puntu hauek jaso behar dira araudietan:

- a) Arau-hausteen sistema tipifikatua, larritasunaren arabera mailakatuta.
- b) Zigor-sistema, bai eta arau-hausteen erantzukizuna arintzen edo astuntzen duten inguru-barrak eta dizi-plina-erantzukizuna iraungitzeko baldintzak ere.
- c) Zenbait arau, puntu hauek bermatzeko: egitate berberetatik bi zigor ez ezartzea, zigoren proportzionalitatea, erruztatuaren alde denean arauak atzeraeraginkortasuna edukitzea eta hautsi baino lehen tipifikatu gabe zeuden arau-hausteetatik ez zigortzea.
- d) Zigorak ezartzeko dizi-plina-jardunbideak.
- e) Hartutako erabakien aurkako errekurso-sistema.

108. artikulua.– Arau-hauste motak eta tipifikazioa.

1.– Arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

2.– Titulu honetan zehaztutako arau-hausteez gainera, erakundeetako araudiek, lege honetan eta legearen araudi-garapenean ezarritako printzipioei eta irizpide orokorrei lotuz, arau-hauste oso larri, larri eta arintzat jo beharreko jarrerak tipifikatuko dituzte kirol eta antolakunde bakoitzaren berezitasunen arabera.

109. artikulua.– Arau-hauste oso larriak.

Edozein kasutan arau-hauste oro larriak izango dira hauek:

- a) Laguntzak eta diru-laguntzak jasotzeko oinarrietan edo erabakietan ezarritakoak ez diren beste helburuetarako erabiltzea laguntza edo diru-laguntza horiek.

b) Laguntzak eta diru-laguntzak jasotzeko eskatzen diren benetako datuetan eta dokumentuetan funtsezko aldaketa egitea.

c) Eskurantzak edo eskumenak legez kontra usurpatzea.

d) Diziplina edo hauteskunde organoetako kideek dagozkien beharkizunak oso larriki ez betetzea.

e) Kirol-instalazioetako segurtasun eta higienerari buruzko federazio-arauak ez betetzea, baldin eta ez betetze horiek arrisku oso larria badira instalazioetan dauden pertsonentzat.

f) Estatutueta eta araudietako arauak eta kirol-federazioen erabakiak behin eta berriro nabarmenki ez betetzea.

g) Segurtasunari eta arriskuen estaldurari buruzko arauak betetzen ez dituzten kirol-jarduerak antolatzea, baldin eta jarduera horiek egiteak arrisku oso larriak sortu ahal badizkio jendeari.

h) Kirol-ekintzetan parte hartzen duten epaile, kirolari, teknikari, kirol-agintari eta bestelakoak erasotzea, beldurtzea eta hertsatzea.

i) Agintekeriak.

j) Partida, proba edo lehiaketa egitea galarazten duen edo aldi baterako edo behin betiko geldiaraztea behartzen duen protesta edo jarduna.

k) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak ez betetzea.

l) Kirolariak, teknikariak, epaileak eta zuzendaritzakoen adierazpen publikoak eta bestelako ekintzak, indarkeriarako bultzagarri direnean.

m) Bidezko arrazoirik gabe federazio-lizentziak ez ematea edo atzeratzea, beti ere tartean asmo txarra badago.

n) Kirol-jarduera aurrera eramateko diren diru publikoak nahita oker erabiltzea.

o) Jokoaren edo lehiaketaren emaitza alde aurretik erabakitzeke eragingarri diren egintzak edo ez-egiteak.

p) Arau-hauste larriak edo oso larriak direla-eta ezarritako zigorrak haustea.

q) Arau-hauste larrietan berriro erortzea.

110. artikulua.– Arau-hauste larriak.

Edozein kasutan arau-hauste larriak izango dira hauek:

a) Arau-hauste arinak direla-eta ezarritako zigorrak haustea.

b) Diziplina edo hauteskunde organoetako kideek ez jardutea edo beren eginkizunak bertan behera uztea, baldin eta beren eginbeharren ez betetze oso larria ez badakar.

c) Arrazoirik gabe euskal kirol-federazioen eta lurraldeetako kirol-federazioen selekzioen deialdiara ez joatea.

d) Bidezko arrazoirik gabe federazio-lizentziak ez tramitatzea edo ez ematea edo atzeratzea.

e) Joko, proba edo lehiaketaren garapen normala oztopatzen duen protesta, beti ere ekitaldia geldiarazi gabe.

f) Epaileei, teknikariei, entrenatzaileei, kirol-agintariei, jokalariei edo bertaratutako jendeari irainak edo laidoak egitea.

g) Epaileei eta teknikariei dagozkien jarduerak behar den titulazio edo baimenik gabe burutzea.

h) Arau-hauste arinetan berriro erortzea.

i) Ofizial izendapena daramaten kirol jarduerak, probak edo lehiaketak behar den baimenik gabe antolatzea.

j) Burutu behar den eginkizunarekin edo jarduerarekin bateraezintzat jo diren jarduera publiko edo pribatuak burutzea.

k) Kirol-lehiaketa burutzeko izan behar den duintasunaren edo lotsaren aurka nabarmenki edo jendaurrean jardutea.

l) Kirol-instalazioetako segurtasun eta higiene baldintzei buruz federazioek emandako arauak ez betetzea, baldin eta ez betetze hori arrisku larria bada instalazioetan dauden pentsonentzat.

m) Estatutueta eta araudietako arauak eta kirol-federazioen erabakiak ez betetzea.

n) Segurtasunari eta arriskuen estaldurari buruzko arauak betetzen ez dituzten kirol-jarduerak antolatzea, baldin eta jarduera horiek ez badiote arriskurik sortzen jendeari.

ñ) Lege honetako 67. artikuluan atxikipen, nahitaezko luzapen, prestakuntza eta antzeko esku-bideen inguruan jasotako debekua hausten parte hartzea.

111. artikulua.– Arau-hauste arinak.

Edozein kasutan arau-hauste arinak izango dira hauek:

a) Epaileei, teknikariei, kirol-agintariei edo bertaratutako jendeari modu desegokian oharrak egitea.

b) Epaileek eta gainerako kirol-agintariek beren eginkizunen barruan emandako aginduak eta jarraibideak betetzean jarrera pasiboa hartzea.

c) Diziplina edo hauteskunde organoetako kideek ez jardutea edo beren eginkizunak bertan behera uztea, baldin eta ez betetze arina bada.

d) Kirol-arauen aurkakoak nabarmenki diren jarrerak, baldin eta oso larritzat edo larritzat kalifikatuta ez badaude.

112. artikulua.– Zigorrak.

1.– Aurreko artikuluetan azaltzen diren arau-haustek direla-eta zigor hauek ezarri ahal izango dira:

Arau-hauste oso larriak:

a) Lizentziarik gabe uztea, gutxienez urtebetean eta gehienez bost urtean.

b) Lizentzia kentzea.

c) 1.000.001 eta 10.000.000 pezeta bitarteko isuna.

d) Kirol-instalazioa ixtea, gutxienez hiru partidarako eta gehienez denboraldi baterako.

e) Kargurik eta eginkizunik ezin izana, gutxienez urtebetean eta gehienez bost urtean.

- f) Kategoriaz jaistea.
- g) Joko, proba edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- h) Joko, proba edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- i) Probak edo lehiaketak egiten diren bitartean kirol-instalazioetan sartzea debekatzea, gutxienez urtebeterako eta gehienez bost urterako.
- j) Joko, proba edo lehiaketak ateak itxita egitea.
- k) Jardunaldi edo proba bati baino gehiagori dagozkien puntu, partida edo sailkapen-postuak galtzea.

Arau-hauste larriak:

- a) Lizentziarik gabe uztea, gutxienez hilabetean eta gehienez urtebetean.
- b) 100.001 eta 1.000.000 pezeta bitarteko isuna.
- c) Kirol-instalazioa ixtea, gehienez bi partidarako.
- d) Kargurik eta eginkizunik ezin izana, gehienez urtebetean.
- e) Joko, proba edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- f) Joko, proba edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- g) probak edo lehiaketak egiten diren bitartean kirol-instalazioetan sartzea debekatzea, gehienez urtebeterako.
- h) Joko, proba edo lehiaketak ateak itxita egitea.
- i) Jardunaldi edo proba bati dagozkion puntu, partida edo sailkapen-postuak galtzea.
- j) Ohartarazpen pribatua.
- k) Ohartarazpen publikoa.

Arau-hauste arinak:

- a) Lizentziarik gabe uztea, gehienez hilabetean.
- b) 100.000 PTArainoko isuna.
- c) Joko, proba edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- d) Joko, proba edo lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- e) Ohartarazpen pribatua.
- f) Ohartarazpen publikoa.

2.– Beren jardueragatik ordainsariak edo konpentsazioak jasotzen dituzten kirolari, teknikari eta epaileei, eta pertsona juridikoei, ezarri ahal izango zaizkie bakarrik diruzko isunak.

3.– Kasuan kasuko diziplina-espedientearen bidez jarritako zigorrak berehala betearaztekoak izango dira. Dena den, aurkeztutako errekursoak ebatzi behar dituzten federazio, administrazio edo jurisdikzio organoek kautelaz bete gabe uzteko dituzten ahalmenak erabili ahal izango dituzte.

113. artikulua.– Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak.

1.– Administrazio-erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak aringarriak eta astungarriak izan daitezke.

2.– Inguruabar aringarriak hauek izango dira:

- a) Probokazio nahikoa izan eta berehalaxe egitea arau-haustea.
- b) Arau-hauslea berez damutzea.

3.– Inguruabar astungarriak hauek izango dira:

- a) Berrito egitea.
- b) Prezioa.

4.– Kirol-diziplinaren ahalmenaz baliatzean, diziplina-organoek bidezko deritzen graduan jarri ahal izango dute zigorra, beti ere kontuan hartuta nolako egitateak diren, zein den erantzulearen nortasuna, nolako ondorioak izan dituen arau-haustea eta inguruabar astungarriak eta aringarriak izan den.

114. artikulua.– Erantzukizuna iraungitzeko arrazoiak.

1.– Kirol arloko diziplina-erantzukizuna arrazoi hauengatik iraungiko da:

- a) Zigorra betetzeagatik.
- b) Arau-haustearen indarraldia amaitzeagatik.
- c) Zigorren indarraldia amaitzeagatik.
- d) Erruztatua edo zigortua hiltzeagatik.
- e) Erruztatutako edo zigortutako kirol-erakundea iraungitzeagatik.
- f) Zigorra barkatzeagatik.

2.– Federatu-izaera galtzea, ezarritako zigorrak betetzerakoan eragina izan badezake ere zenbait kasutan, ez da diziplina-erantzukizuna iraungitzeko arrazoia izango.

115. artikulua.– Arau-hausteen eta zigorren indarraldia amaitzea.

1.– Arau-hauste oso larrien indarraldia arau-haustea egin den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hiru urte pasatzean amaituko da, arau-hauste oso larriena urtebete pasatzean eta arau-hauste arinena hilabete pasatzean. Jarduera jarraietatik etor litezkeen arau-hausteetan, berriz, jarduera amaitu den eguna edo arau-haustea burutu duen azken egintzaren eguna izango da indarraldi-epearen hasiera.

2.– Zigor-jardunbidearen hasiera jakinarazten denean eten egingo da indarraldia amaitzeko epea. Aipatutako jardunbidearen menpean dagoen pertsonari edo erakundeari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jardunbidea geldirik badago hilabete bat baino gehiago, dagokion epeak aurrera jarraituko du.

3.– Arau-hauste oso larrien, larrien edo arinen zigorren indarraldia hiru urte, urtebete edo hilabete pasatzean amaituko da, eta indarraldia amaitzeko epearen hasiera zigorra ezarri zuen ebazpenak behin betikotasuna hartu eta biharamuna izango da.

116. artikulua.– Diziplina-jardunbideak.

1.– Diziplina-erantzukizunak eskatzeko, ohiko jardunbidea eta ohiz kanpoko jardunbidea erabiliko dira.

2.– Ohiz kanpoko jardunbideak lehentasun eta sumariotasun printzipioak izango ditu oinarri, eta batez ere joko edo lehiaketa arau-hausteei ezarriko zaie.

117. artikulua.– Diziplina-erantzukizunak eta erantzukizun penalak aldi berean gertatzea.

1.– Kirol arloko diziplina-organoek, ofizioz edo alderdi interesdunaren eskariz, ministerio fiskalari jakinarazi beharko dizkiote delitu edo hutsegite penal izan daitezkeen egitateak. Horrelakoetan, kirol arloko diziplina-organoek jardunbidea etetea erabakiko dute harik eta epaileak bere ebazpena eman arte.

2.– Aurrekoa gorabehera, kirol arloko diziplina-organoek behar diren babes-neurriak har ditzakete.

118. artikulua.– Diziplina-erantzukizunak eta administrazio-erantzukizunak aldi berean gertatzea.

1.– Baldin eta egitate berbera dela-eta, batetik, lege honetako XI. tituluan araututako administrazio-erantzukizunak eta, bestetik, diziplina-erantzukizunak eskatu ahal badira, kirol arloko diziplina-organoek, ofizioz edo alderdi interesdunaren eskariz, horren berri eman beharko diote administrazio-organo eskudunari, eta horrez gainera diziplina-jardunbidea tramitatu ahal izango da.

2.– Baldin eta diziplina-organoek jakiten badute badirela administrazio-erantzukizuna baino ez dakarten egitateak, horren berri emango diete administrazio-organo eskudunei.

XI. TITULUA

KIROL IKUSKATZEA ETA ZIGOR ARAUAK

I. KAPITULUA

KIROL-IKUSKATZEA

119. artikulua.– Eginkizunak.

Eusko Jaurlaritzaren barruan kirol arloko eskumenak dituen sailak beteko ditu kirol-ikuskatze eginkizunak, eta kirol arloko lege-xedapenak eta araudi-xedapenak betetzea kontrolatuko du, batez ere kirol-zentroei eta kirol-titulazioei buruzko xedapenak betetzea.

120. artikulua.– Ikuskatzeko eskumena.

Lizentziak edo baimenak emateko eskumena duen administrazioak ikuskatuko ditu instalazioak eta jarduerak. Eusko Jaurlaritzak ordeztu ahal izango du udalen ikuskatze-ahalmena, udalekin hitzarmen bat sinatuz.

121. artikulua.– Gaituriko pertsonak.

Ikuskatze-eginkizunak betetzeko, ezinbestekoa izango da kasuan kasuko espezializazio teknikoa edukitzea eta Eusko Jaurlaritzak gaituak izatea ikusketa-lanetarako.

122. artikulua.– Ahalmenak.

1.– Beren eginkizunak betetzean, ikuskatzaileak, behar bezala kreditatuta, agintaritzaren agente izango dira, eta indarrean dagoen araudiak agintaritzaren agenteei ematen dizkien babesaz eta ahalmenez baliatu ahal izango dute.

2.– Eginkizunak hobeto betetzeko egokitzat jotzen badute, ikuskatzaileek beste erakunde batzuen menpeko pertsonen eta zerbitzuen laguntza eskatu ahal izango dute.

123. artikulua.– Kirol-ikuskatzearekiko betebeharrak.

Kirol-zentroetako titularrek eta kirol arloan zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonak edo erakundeek utzi egin beharko diete ikuskatzaileei lokaletan sartzeko, dokumentuak eta ondasunak kontrolatzen eta aztertzen; halaber, behar den laguntza emango diete ikuskatze-lanetan.

124. artikulua.– Aholkularitza eta laguntza teknikoa.

1.– Kirol-ikuskaritzak bere gain hartuko du kirol-zentroak ireki eta jardunean jartzeko betebeharreri buruzko aholkularitza, eta berari dagokio, halaber, lege honetan araututako gai guztiei buruzko aholkularitza ere, legea zuzen beteko dela bermatzeko.

2.– Udalek, ikuskatze-zerbitzu egokirik ez badute, behar den laguntza teknikoa eskatu ahal izango diote Eusko Jaurlaritzako kirol-ikuskaritzari.

II. KAPITULUA

ZIGOR-ARAUAK

125. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan gertatzen diren egintzei edo ez-egiteei ezarriko zaizkie kapitulu honetako xedapenak, Estatu edo nazioarte eremuko kirol-lehiaketetan gertatzen diren kontuan hartu gabe.

126. artikulua.– Arau-hauste administratiboak eta erantzuleak.

1.– Titulu honetan jasotako egintzak edo ez-egiteak izango dira kirol arloko arau-hauste administratiboak, eta arau-hausteak egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira erantzuleak.

2.– Kirol arloko arau-hauste administratiboak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

127. artikulua.– Arau-hauste oso larriak.

Arau-hauste oso larriak hauek izango dira:

a) Pertsonen osasunean eta segurtasunean ondorio larriak ekar ditzaketen eran burutzea kirol-jarduerak eta eskaintzea kirol-zerbitzuak.

b) Kirol-instalazioetan edo instalazioen sarbideetan istilu publikoetan indarkeria erabiliz parte hartzea, baldin eta istiluak oso arriskugarriak badira pertsonentzat eta ondasunentzat.

c) Kirol-instalazioetako segurtasun eta higiene baldintzak ez betetzea, baldin eta ez betetzea oso arriskugarria bada pertsonentzat eta ondasunentzat.

d) Behin onarpen ofiziala ezeztatutakoan kirol-federazioa desegin beharrekin loturiko behar-kizunak ez betetzea.

e) Indarkeriarako bultzagarri arriskutsuak diren adierazpenak eta egintzak.

f) Prezio, beldur edo antzeko beste era batzuk erabiliz partida, proba edo lehiaketen emaitzak aldeztatik erabakitzeko ekintzak.

g) Kirol bakoitzeko arau teknikoen kontra kirol materiala edo ekipamendua manipulatzeko edo aldatzeko parte hartzea, aldeztatik erabakitzeko partida, proba edo lehiaketen emaitzak.

i) Hutsegite larrietan berriro erortzea.

j) Arau-hauste larriak edo oso larriak direla-eta ezarritako zigorrak haustea.

128. artikulua.– Arau-hauste larriak.

Arau-hauste larriak hauek izango dira:

a) Irabazi-asmorik gabeko kirol-erakunde bidez enpresa eta lanbide jardueren irabazi-asmoa ezkatzea.

b) Kirol-instalazioetan eta kirol altzarietan edo ekipoetan engainuz kalteak egitea.

c) Ikuskatze, kontrol edo fiskalizazio lanetan laguntza ez ematea edo trabak jartzea.

d) Kirol-federazioek bereak dituzten izenak erabiltzea edo jarduerak burutzea.

e) Eskola-umeen kirol-jarduerak foru-aldundiek baimendu gabe antolatzea edo jarduera horietan parte hartzea.

f) Hutsegite arinetan berriro erortzea.

g) Arau-hauste arinak direla-eta ezarritako zigorrak haustea.

129. artikulua.– Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak hauek izango dira:

a) Ikusle, kirolari eta kirol-instalazioetako gainerako erabiltzaileen begirunerik eza, baldin eta ordena publikoan eragiten ez badute.

b) Lege honetako 98. artikuluko ezarritako informazio-beharkizuna ez betetzea.

c) Arretarik eza edo utzikeria izatea kirol-instalazioak eta kirol altzariak edo ekipoak mantentzen eta zaintzen.

130. artikulua.– Ondorioak.

1.– Arau-hauste administratibo orok ondorio hauek izan ditzake:

a) Zigorrak ezartzea, bestelako erantzukizunak ahaztu gabe.

b) Eragindako galerak eta kalteak konpondu beharra.

c) Hautsitako ordena juridikoa berriro ezartzeko eta arau-haustek eragindako ondorioak deuseztatzeko behar diren neurri guztiak hartzea.

2.– Ezar litezkeen zigorrak gorabehera, emandako laguntzak eta diru-laguntzak itzultzea erabaki ahal izango du administrazio-organo eskudunak.

131. artikulua.– Zigorrak.

1.– Aurreko artikuluetan adierazitako arau-hausteak egiteak zigor hauek ekarri ahal izango ditu:

- a) Diru-isuna.
- b) Jarduera debekatzea.
- c) Administrazio-baimena ezeztatzea.
- d) Kirol-instalazioak ixtea.
- e) Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eskubidea galtzea.
- f) Kirol-instalazioetara sartzea galaraztea.
- g) Kirol-jarduerak antolatzeko gaitasuna kentzea.

2.– Arau-hauste arinak 10.000 eta 100.000 PTA bitarteko isunarekin zigortu ahal izango dira, larriak 100.001 eta 1.000.000 PTA bitarteko isunarekin, eta oso larriak 1.000.001 eta 10.000.000 PTA bitarteko isunarekin.

3.– Arau-hauste oso larriak direla eta, b), c), d), e), f) eta g) letretan aipatutako zigor osagarriak ezarri ahal izango dira, gehienez ere lau urtera arte.

4.– Arau-hauste larriak direla eta, b), c), d), e), f) eta g) letretan aipatutako zigor osagarriak ezarri ahal izango dira, gehienez ere bi urtera arte.

5.– Ezar litezkeen zigorren eta erantzukizunen zenbatekoa behartze-bide administratibotik eskatu ahal izango da.

132. artikulua.– Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak.

1.– Administrazio-erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak aringarriak eta astungarriak izan daitezke.

2.– Inguruabar aringarriak hauek dira:

- a) Probokazio nahikoa izan eta berehalaxe egitea arau-haustea.
- b) Arau-hauslea berez damutzea.

3.– Inguruabar astungarriak hauek dira:

- a) Berriro egitea.
- b) Prezioa.

4.– Gainera, zigorrak ezartzean, inguruabar hauek hartuko dira kontuan:

- a) Eragindako kalteak.
- b) Sortutako arriskuak.
- c) Aurretiazko ohartarazpenak izatea.

- d) Nahita egitea.
- e) Legez kanpo lortutako onura.
- f) Erakundearen jardueraren bolumen ekonomikoa.

133. artikulua.– Zigorren bateragarritasuna.

1.– Egitate berberak direla medio eta babestutako interes berberengatik ezin izango da sekula bi zigor ezarri.

2.– Nahiz eta titulu honetan aurreikusitako arau-hausteak direla-eta zigorrak ezarri, kasua bada kirol arloko diziplina-erantzukizunak ere ezarri ahal izango dira, bestelako izate-arrazoia baitute.

134. artikulua.– Arau-hausteen indarraldiaren amaiera.

1.– Arau-hauste oso larrien indarraldia arau-haustea egin den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hiru urte pasatzean amaituko da, arau-hauste larriena urtebete pasatzean, eta arinena sei hilabete pasatzean. Jarduera jarraietatik etor litezkeen arau-hausteetan, berriz, jarduera amaitu den eguna edo arau-haustea burutu duen azken egintzaren eguna izango da indarraldi-epearen hasiera.

2.– Zigor-jardunbidearen hasiera jakinarazten denean, eten egingo da indarraldia amaitzeko epea. Aipatutako jardunbidearen menpean dagoen pertsonari edo erakundeari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jardunbidea geldirik badago hilabete bat baino gehiago, dagokion epeak aurrera jarraituko du.

3.– Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zigorren indarraldia hiru urte pasatzean amaituko da, arau-hauste larrien kasuan urtebete pasatzean, eta arau-hauste arinen kasuan sei hilabete pasatzean.

135. artikulua.– Behin-behineko neurriak.

1.– Zigor-espeditatea irekitzeko eskumena duten organoek behar diren behin-behineko neurriak hartu ahal izango dituzte, arrazoiak emanda, edozein unetan, balizko ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko eta ondasunen eta pertsonen segurtasuna bermatzeko.

2.– Neurri horiek ez dute edukiko zigor-izaerarik, eta hauek izan daitezke:

- a) Diru-bermeak jartzea.
- b) Zerbitzuak, jarduerak edo baimenak aldi baterako etetea.
- c) Kirol-instalazioak ixtea.

136. artikulua.– Zigortzeko ahalmena.

Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalei dagokie, zeini bere eskumenen esparruan, zigortzeko ahalmena erabiltzea.

XII. TITULUA

KIROL JUSTIZIA

I. KAPITULUA

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEA

137. artikulua.– Izaera.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-justiziaren arloan administrazio-organo nagusia Kirol Justiziako Euskal Batzordea izango da.

2.– Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumenak dituen sailari atxikiko zaio Kirol Justiziako Euskal Batzordea. Dena den, beregaina izango da sailarekiko, eta azken administrazio-auzialdian erabakiak hartuko ditu bere eskumeneko gaiei buruz.

138. artikulua.– Eskumenak.

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenak hauek izango dira:

a) Kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekursoak aztertzea eta ebaztea.

b) Kirol-federazioetako hauteskunde-batzarren erabakien aurka jarritako errekursoak aztertzea eta ebaztea.

c) Lehiaketa ofizialak bideratu, kalifikatu eta baimentzeari eta lizentziak tramitatu eta emateari dagozkien federazio-erabakien aurka jarritako errekurso guztiak aztertzea eta ebaztea.

d) Administrazio-eginkizunak betetzean federazioen artean sor litezkeen auziak aztertzea eta ebaztea.

e) Batzordeak, ofizioz edo Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren eskariz, gorago aipatutako gaien artetik aztertu beharreko ikusten dituenak aztertzea eta ebaztea.

139. artikulua.– Ebazpenak.

1.– Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute, eta administrazioarekiko auzitarako jurisdikzioaren aurrean errekurritu ahal izango dira bakarrik.

2.– Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak, hasiera batean, kirol-ekintzaren titularra den erakundearen bidez betearaziko dira, eta titularra izango da ebazpenak zuzen betetzearen erantzulea. Titularrik ez badago, batzordeak berak betearaziko ditu ebazpenak.

140. artikulua.– Osaera.

1.– Sei kide titularrek osatuko dute Kirol Justiziako Euskal Batzordea; Zuzenbidean lizentziatuak eta kirol arloko lege-gaietan esperientzia handikoak izan beharko dute. Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumenak dituen sailak izendatuko ditu. Aipatutako sei kide titularrez gain, sailak bi ordezeko izendatuko ditu.

2.– Kirol Justiziako Euskal Batzordeak osoko bilkuran eta sekzioetan jardun ahal izango du.

3.– Indarrean dagoen legedian aurreikusitako abstentzio edo ezespen zioak aplikatu ahal izango zaizkie batzordeko kideei.

4.– Kirol Justiziako Euskal Batzordeko kideek lehendakaria eta lehendakariordea aukeratu beharko dituzte beren artetik. Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumena duen sailak izendatuko du, bere funtzionarioen artetik, batzordeko idazkaria.

5.– Batzordeko kide karguek ez dute ordainsaririk izango, eta jarduna dela-eta dagozkien dietak jasotzeko eskubidea izango dute bakarrik.

141. artikulua.– Araudi bidezko garapena.

Lege hau garatzen duten araudi-xedapenek finkatuko da Kirol Justiziako Euskal Batzordearen osaera eta jardura.

II. KAPITULUA

ARBITRATZEA

142. artikulua.– Estatutuen eta araudien aurreikuspenak.

1.– Kirol-federazioen estatutuetako eta araudietako arauak arbitratze-formulak aurreikusi eta zehaztu beharko dituzte, hurrenez hurren, beren kideen artean gerta litezkeen desdostasunak auzitegietatik kanpo ebazteko. Arbitratzeari buruzko legedi orokorraren zehaztasunei, baldintzei eta ondorioei lotuz aplikatuko dira formula horiek.

2.– Araudietako arauak puntu hauek zehaztu beharko dituzte:

- a) Arbitratzearen helburu izan daitezkeen gaien zerrenda.
- b) Ukitutako pertsonak arbitratze-formula horiek onartzeko moduak.
- c) Arbitratze-formula horiek aplikatzeko jardunbidea, beti ere kontraesan eta berdintasun printzipioak errespetatuta.
- d) Desadostasunetan erabakitzeke arduratu duten organoak edo pertsonak, eta horiek izendatzeko jardunbidea.
- e) Laudoak betearazteko formulak.

143. artikulua.– Borondatezko men egitea.

Zuzenbidearen araberrako edo ekitatezko arbitratze-sistemei men egitea borondatezkoa izango da beti. Debekatuta egongo dira, beraz, epaileak, teknikoak, kirolariak eta gainerako pertsonak edo kirol-erakundeak beren arteko auziak arbitratze-formulen bidez konpontzera behartzen dituzten arauak edo erabakiak.

144. artikulua.– Arbitratzea sustatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoek arbitratze-eginkizunak dituzten erakundeak sortzea bultzatu beharko dute. Halaber, arbitratzearen kultura hedatu beharko dute kirol-mugimenduko kideen artean, kirol-munduan sortzen diren gatazkak konpontzeko formula egoki gisa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Klubak herri-onurakotzat jotzea.

1.– Lege honetan aipatutako kirol-klubak herri-onurakotzat jo ahal izango dira Eusko Jaurlaritzaren erabakiz, dagokion foru-aldundiaren txostena aztertu eta gero. Herri-onurakotzat jotzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Euskadiko interes orokorrari ekarpena egitea.

b) Bazkide-kopurua mugatuta edukitzea, non ez den kirol-instalazioen edukiera fisikoagatik edo harmenagatik.

c) Bazkideen kuotek ez gainditzea araudi bidez zehaztutako kopuruak.

2.– Herri-onurakotzat jotzeak lege honen 32. artikuluan ezarritako hobariak ekarriko ditu.

Bigarrena.– Lankidetzat-hitzarmenak eskola-kirolean.

Euskal eskola publikoaren barruan dauden ikastetxeen, kirol-elkarteen eta gainontzeko erakunde publiko edo pribatuen artean eskola-kirolaren arloan lankidetzat-hitzarmenak zabaldu daitezkeen, aipatutako ikastetxeen zuzendariak lankidetzat-hitzarmenak izenpetzeko baimena izango dute, Eusko Jaurlaritzan hezkuntza arloan eskumena daukan sailak, bere kasuan, araudi bidez zehazten dituen mugekin eta baldintzekin.

Hirugarrena.– Kirol-federazioen hizkuntza normalkuntza.

Kirol-federazioek beren jardunean euskararen erabilera normaltzeko egokiak diren neurriak hartuko dituzte. Bereziki, katalogoetan, programetan, iragarpen-hormirudietan eta beren kirol jardueretan eta lehiaketetan erabiltzen duten gainontzeko irudizko edo entzutezko materialean bultzatuko dute euskararen erabilera.

Laugarrena.– Ikuskatze-plan orokorra.

Lege honetan aurrikusitakoak behar bezala betetzea bermatzeko, Eusko Jaurlaritzak lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean ikuskatze-plan orokor bat onartuko du. Plan horrek, gutxienez, egin beharreko ikuskatzeen helburu orokorrak, lehentasunak eta egutegia zehaztuko ditu.

Bosgarrena.– Herri-kiroletarako, euskal pilotarako eta arraunketarako plan estrategikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan herri-kirolen, euskal pilotaren eta tosta finkoko arraunketaren garapena bultzatzeko, Eusko Jaurlaritzak plan estrategikoa bat onartuko du urtebeteko epean. Ukitutako euskal federazioek, Kirolaren Euskal Kontseiluak eta kirol-mota horiekin zerikusia daukaten gainontzeko agenteek parte hartuko dute planean. Planak zehaztasun hauek jasoko ditu gutxienez:

a) Planaren helburuak.

b) Helburu horiek lortzeko neurriak.

c) Neurri horiek burutzerakoan erakunde publiko eta pribatu batzuek eta besteek izango dituzten erantzukizunak.

d) Plana burutzeko epeak.

e) Plana berraztertzeak jardunbidea eta epeak.

f) Kanpo-sustapena.

Seigarrena.– Kirol-federazioen hitzarmenak kirol jarduera eta lehiaketa komunak egiteko.

Kirol-federazioek lankidetzeta edo laguntza hitzarmenak egin ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko edo kanpoko kirol-erakunde publiko edo pribatuekin, kirol jarduera eta lehiaketa komunak egiteko. Bereziki, kirol-federazioek lankidetzeta-formulak bultzatuko dituzte beste euskal lurralde batzuetan eta beste erkidego batzuetan Euskal Herriko bertako kirolen praktika eta garapena sustatzen duten kirol-erakundeekin.

Zazpigarrena.– Ordaindu beharra dutenak.

Osasunaren Lege Orokorraren 83. artikuluan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateratuko 22. xedapen gehigarrian eta aplikatzekoak diren gainontzeko xedapenetan zehaztutakoa jarraituz, zerbitzu-sare publikoak edo Osasun Sailak itundutakoak kirolari federatuei ematen dien osasun-laguntza lege honen 78.1 artikuluan xedatutakoan sartuta ez baldin badago, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuak zehaztutakoaren arabera fakturako eta eskatuko da, eta besterik ezean kirol-federazioei fakturako eta eskatuko zaie, unean-unean indarrean dauden prezio publikoen arabera edo egiten diren hitzamenek edo itunek lotuz.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Estatutuen egokitzapenak.

Klub, elkarte eta federazioen estatutuetako eta araudietako xedapenak arautegi berriari egokitu beharko zaizkio lege hau garatzeko xedapenetan zehaztutako epeen barruan. Araudi-garapen hori egiten ez den bitartean, lege honen aurka ez doazen estatutu eta araudi xedapenak aplikatzen jarraituko da, eta indarrrik gabe geldituko dira legearen aurkakoak direnak.

Bigarrena.– Kirol-zentroak.

Lege honen 98. artikuluan araututako kirol-zentro guztiak, jardunean badaude lege hau indarrean sartzen denean, lege horretan zehaztutakoari egokitu beharko zaizkio legea garatzeko arauak ezartzen dituzten epeak eta baldintzak betez. Garapen-arau horiek aldi baterako araubide berezia aurreikusi ahal izango dute, zentroen titularrek dagozkion egokitzapenak egin eta baimenak lor ditzaten, arrisku-faktoreak, berrikuntzen kostua eta antzeko beste gorabehera batzuk kontuan hartuz.

Hirugarrena.– Kirol Erakundeen Erregistroa.

Kirol Erakundeen Erregistroa modu berrian antolatzeke eta jarduteke beharrezkoak diren xedapenak ematen ez diren bitartean, erregistroaren egitekoak apirilaren 3ko 94/1990 Dekretuaren arabera burutuko dira.

Laugarrena.– Diziplina eta zigor espedienteak.

Lege hau indarrean sartu baino lehen hasitako diziplina eta zigor espedienteak edukizko aurreko arautegiaren arabera tramitatuko dira. Dena den, lege honetan aurreikusitakoak aplikatu ahal izango dira espedientatuaren aldekoago direnean.

Bosgarrena.– Kirol Justiziako Euskal Batzordearen jarduera.

Kirol Diziplinako Euskal Batzordeak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzeko xedapenak onartzen ez diren bitartean, oraingo osaera eta jarduerarekin jarraituko du, baina Kirol Justiziako Euskal Batzordea izen berriarekin.

Seigarrena.– Nortasun juridikoa duten kirol-elkarteak.

1.– 5/1988 Legearen 33.1.c) artikulua babespean sortutakoak diren nortasun juridikodun kirol-elkarteek kirol-klub bihurtu beharko dute.

2.– Eraldaketa hori lege hau garatzeko arauetan ezartzen diren epeen barruan burutuko da.

3.– Kirol-elkarteak klub bihurtzeak ez du ekarriko nortasun juridikoa aldatzerik; aurreko bera izango da formal sozial berriarekin ere.

4.– Eraldatzen diren kirol-elkarteek beren egungo izenarekin jarraitu ahal izango dute.

5.– Kirol-elkarteen administrazio-organoei eraldaketa erabakitze eta tramitatze ahalmena izango dute.

6.– Araudi bidez ezarritako epea amaituta, Kirol Erakundearen Erregistroan ez da dokumenturik inskribituko eraldaketa inskribitu ez den bitartean. Salbuetsita daude epailetza edo administrazio agintaritzak eskudunak agindutako idazpenak.

Zazpigarrena.– Araudi bidezko garapena.

Eusko Jaurlaritzak lege honetan aurrikusitako kasuetan araugintza-ahalmena erabiltzen ez duen bitartean, orain arte indarrean egon diren xedapenak aplikatuko dira lege honen aurka ez doazen guztian.

INDARGABETZE XEDAPENAK

Lehenengoa.– Soin Kulturaren eta Kirolaren otsailaren 19ko 5/1988 Legea.

Indargabetuta geldituko da oso-osorik Soin Kulturaren eta Kirolaren otsailaren 19ko 5/1988 Legea.

Bigarrena.– Indargabetze-xedapen orokorra.

Indargabetuta geldituko dira lege honetan agindutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legea aldatzea.

Lerroalde berri bat gehituko zaio Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa Arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 1. artikulua 2. zenbakiari:

«Halaber, lege honetatik kanpo geldituko dira kirol joko eta lehiaketak, irabazi-asmoa dutenak eta ez dutenak. Ez dira lege honetatik kanpo geldituko, ordea, kirol joko edo lehiaketen gaineko apustuak».

Bigarrena.– Zigorren zenbatekoa eguneratzea.

Eusko Jaurlaritzak eguneratu ahal izango du lege honetan zehaztutako zigorren zenbatekoa.

Hirugarrena.– Legearen garapena.

Eusko Jaurlaritzak ahalmena izango du Lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.